

Mugarik gabeko aniztasuna



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Mugarik gabeko aniztasuna



Edizioa: 1., 2017ko iraila

© Bizkaiko Foru Aldundia

Internet:

www.gaztebiz.eus

www.egk.eus

Egilea:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)

Argitaratzailea eta Koordinatzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia. Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusia

Diseinua eta maketazioa:

José Poza Valle

Lege Gordailua:

BI-1497-2017



O. Hasi aurretik...



Garrantzitsua iruditzen zaigu Gida hau irakurtzen duzuen pertsonen jakitea terminologia ezberdinak erabiltzen direla jorratuko dugun gaiari erreferentzia egiteko.

Hitzek ideiei egiten diete erreferentzia, hau da, aipatzen den objektu edo izakiaren inguruan kulturalki onartuta dauden balioei. Hizkuntzaren bitartez, balio horiek pertsonen artean transmititzen dira, baita denboran zehar ere, eta kontzientzia sortzen da horrela. Dagoeneko ez dira konnotazio negatiboa duten hitzak erabiltzen, hala nola, ‘subnormala’, ‘atzeratua’ edo ‘minusbaliatua’, lehen ofizialki ere erabiltzen zirenak.

Gaur egun, hitz positiboak erabiltzen dira. Bi joera nagusi daude terminologiari dagokionean; batek urritasuna duten pertsonen egiten die erreferentzia, eta besteak aniztasun funtzionala duten pertsonen. Desadostasun terminologikoa gorabehera, biek ala biek jartzen dute pertsona ezaugarrien aurretik. Alderdi hori da garrantzitsua. Gaur gaurkoz, erabiltzen den hitza edozein dela ere, joera guztiek dute abiapuntu berbera: pertsonari lehentasuna ematea eta beste ezereen gainetik pertsona jartzea.

Eztabaida terminologikotik harago, Gida honen bitartez aukera berdintasuna landu nahi da, aniztasun funtzionala duten pertsonen diskriminazio eza, alegia. Horretarako, garrantzitsua da ulertzea, Urritasunaren eta Osasunaren Funtzionamenduari Nazioarteko Sailkapenaren arabera (OME), urritasunaren kontzeptua pertsonak parte-hartzean eta funtzionamenduan dituen mugetan oinarritzen dela, eta horren kausa argia dela pertsonaren osasun egoeraren eta inguruko elementu edo faktoreen arteko lotura, horrela eredu “biopsikosozialari” erreferentzia eginez.

Aniztasun funtzionala edo urritasuna?

Urritasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak¹, NBEk 2006an onartu eta Espainiar Estatuak berretsitakoak, urritasuna duen pertsona gisa definitzen du urritasun bat edo gehiago dituen pertsona.

Bizitza Independentearen Foroak, edozein urritasun duten pertsonen eskubideen aldeko aldarrikapen-espazioak, terminologia ez-negatibo baterako aldaketa proposatu zuen lehendabizikoz 2005eko urtarilean; hala, pertsonaren erreferentzia mantendu eta kontzeptuari begirada ezberdina ematea planteatu zuen, ‘aniztasun funtzionala’ terminoa sortuta.

Ez dugu terminologia zuzen eta okerraren inguruko eztabaidatan hasi nahi. Gaur egun etengabe erabiltzen diren terminoei egiten diegu erreferentzia, eta biek goratzen dute pertsonarenganako errespetua.

Termino aniztasun honen aurrean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK-k) ‘aniztasun funtzionala’ formula erabiltzeko hautua egin du, Bizitza Independentearen Foroaren aldarriarekin bat. Hori dela eta, Gida honetan aniztasun funtzionalaz mintzatuko gara une oro, aniztasun funtzionala duten pertsonen erreferentzia eginez.

¹ NBE (2006).Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa eta eskumeneko protokoloa.

1. Gidaren aurkezpena



1.1. Zer da “Mugarik Gabeko Aniztasuna”?

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenaren baitan argitaratuko duen Gida-bildumaren bigarren lana da ‘Mugarik Gabeko Aniztasuna’.

Aniztasun funtzionala duten pertsonak ez daude gizartean erabat barne hartuta. Hori dela eta, ezinbestekoa da bizitzako lehenengo faseetan aniztasun funtzionalaren aldeko heziketa jasotzea. Helburu honetan nahasita dauden eragile kopuru ahalik eta handiena elkartzeko asmoz (irakasleak, aisialdi eta astialdi arloko eragileak, familiak...) sortu da “Mugarik Gabeko Aniztasuna” Gida.

1.2. Osagaiak

Marko honetan eraiki diren Gida guztien helburua da ume nahiz gazteen beharrei erantzuten dieten ikuspegi batetik beraiekin hezkuntzan aritzeko tresna teoriko zein metodologikoak eskaintzea. Hala nola, hauetatik haratago doazen dauden tresna eta baliabideak ere ikusaraztea.

Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin argitaratutako bildumaren bigarren Gida honetan, bi material sortu ditugu berariaz. Alde batetik, Gida, sakontasunez azaltzen dituen bai arlo teoriko zein praktikoa. Bestetik, triptikoa, egunerokotasunean ager daitezkeen galderei erantzun azkarra emateko laguntza baliabidea dena.

1.2.1. Gida

Gida, edozein testuinguru pedagogikotara egokitu daitekeena, proiektutik kanpoko informazio, adibide praktiko eta baliabideak erabiliz osatu da. Horregatik, haren diseinua oso baliagarria da egunerokotasunean abiapuntu baten bila dabiltzan pertsonentzako, baita esku-hartze puntualak egin nahi dituzten horientzat ere, eta gazteen beharrian eta zalantzei erantzuna eman ahal izateko ere bai.

1.2.2. ‘Larrialdietarako’ triptikoa

Gidaren baliabide osagarri gisa sortu dugu triptikoa. Bertan jaso ditugu Gidan adierazi nahi diren ideia nagusiak, betiere pertsona ardatz hartuta eta inguruan haren gan duen eragina ulertuta.

Material honetan jasotzen dira aniztasun funtzionala duen pertsona batek astialdiko jarduera batean parte hartuko duela jakitean kontuan izan beharreko jarraibideak. Era berean, aniztasun funtzionala duten pertsonetikiko eduki beharreko jarreraren inguruko aholkuak jasotzen dira.

2. Aniztasun funtzionala txertatuz



Gizarte osoaren beharrez gainera, ezinbestekoa da Gidaren egitura zein nondik norakoak definitzen lagundu duten eta elkarriketatu diren pertsonen beharrez ere kontuan hartzea.

2.1 Gidaren arrazoia: errealitatearen aniztasuna

UNESCOren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotzen denez², "Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela". Gaur gaurkoz, aniztasun funtzionala duten pertsonak lanean jarraitzen dute erabateko inklusioa eragozten dieten oztopoak ezabatzeko.

64.918

→ 5,65%

Bizkaian, 64.918 pertsonak dute aniztasun funtzionala (% 33 edo gehiagoko 'urritasuna' aitortuta), biztanleria osoaren % 5,65ek, alegia. Datu horri familiak gehitzen badizkiogu, 200.000 pertsona baino gehiago egon litezke aniztasun funtzionalarekin zuzenean edo zeharka erlazionatuta, biztanleria osoaren ia % 25.

2016-2019an Bizkaian urritasuna duten pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko Planaren datuak. Bizkaiko Foru Aldundia.

² UNESCO (2008). Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

‘Normala’ dena oinarri hartuta eraikitzen dugu gure ingurua, estatistikaz gehiengoa osatzen duen horretan oinarrituta. Sortu dugun gizartean ez da kontuan izan aniztasuna arlo guztietan barne hartzeko aukera (hezkuntzan, lanean, garraioan, komunikazioan, aisialdian...). Aniztasun funtzionalak eragina izan dezake pertsona baten eguneroko bizitzaren hainbat alderditan eta, hortaz, zeharka landu beharreko gaia da. Pertsona guztiengan pentsatuz eraiki behar da gizartea. Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako hobekuntza edo egokitzapen orok eragin positiboa dauka gizarte osoarentzat; horren adibide garbia da irisgarritasun unibertsala.

Gauzak horrela, argi dago pertsona guztien erabateko inklusioa lortzera bidean, aniztasun funtzionalaren beharrianetako bat dela, nolabait esateko, errealitate ezberdinen onarpenean sakontzea, pertsona orok gizarteari egiten dioten ekarpen eta balio erantsia aitortuz eta azpimarratuz. Horretarako, oso lagungarria da aniztasun funtzional mota ezberdinei buruzko oinarrizko ezagutzak edukitzea eta horien ezagutza nagusiak ezagutzea (etiketak jartzean erori gabe eta pertsona bakoitza bakarrik dela ahaztu gabe). Aurreko guztia kontuan hartuta sortu genuen Gida hau, erabateko inklusioa lortzeko bidean urrats berri bat emateko tresna gisa; betiere, ikusgarritasuna landuz, aukerak edukitzeko eta inguruak eraldatzeko beharrian sakonduz, eta oinarrizko esku-hartze baliabideak eskainiz.

2.2 Aniztasunaren beharrianak, Gidaren oinarri

Aniztasun funtzionalaren arloan aisialdi hezitailerako esku-hartze egoki bat diseinatu ahal izateko, testuinguru horretan aurki ditzakegun erronkak eza-gutu beharko ditugu abiapuntu modura. Ezinbestekoa da beharrian zehatzak oinarri hartzea eta aniztasun funtzionala duten pertsonekin zuzenean lan egiten duten erakundeen eskaerak eta proposamenak ikustaraztea, astialdirako dauden ereduak beharrian eta proposamen horietara egokitzeko.

Argi dago erakundeek eta pertsona gazteek bizi dituzten zailtasunak eta egiten dituzten eskaerak kontuan hartu beharra dagoela, ezinbestekoa baita gaurko eta biharko gazteei laguntzeko inguru bat eraikitzeko.

Gauzak horrela, funtsezkoa da eragileek beraiek -bai pertsona gazteek eta bai familiek eta hezitzaileek- hautemandako beharrianak eta egindako proposamenak aztertzea.



2.2.1. Gazteen errealitatea lehenengo eta hirugarren pertsonan

BFAk egindako “Desgaitasuna duten Bizkaiko gazteen aisiaren egoerari buruzko azterlana” dokumentutik (egileak: Madariaga, A. eta Lazcano, I., Bizkaiko Foru Aldundiak 2014an argitaratua) ateratako profileen oinarritu gara:


“Sexuari erreparatuz gero, urritasuna duten gazte bizkaitarren % 47 emakumezkoak dira eta % 53 gizonezkoak. Lagin honetan biztanleriaren hiru segmentu bereizten dira adinaren arabera: 16 eta 19 urte bitarteko pertsonak (% 23), 20 eta 24 urte bitarteko pertsonak (% 34), eta 25 eta 29 urte bitarteko pertsonak (% 43, bolumenik handiena duen taldea).

Hainbat elkarrizketa egin zaizkie aniztasun funtzionalaren zein astialdi hezitzailearen esparruko elkarreketakoak diren pertsona gazteei, familiei eta hezitzaileei.

Elkarrizketetan oinarritzko galdetegi berdina erabili da, galdera irekiekin, erakundeetako pertsonak egokitzen jotzen duten ekarpen oro egin ahal izateko. Helburua ez zen datu estatistikoak lortzea, pertsona bakoitzaren diskurtsoan gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko proposamen bat egiteko gakoak aurkitzea baizik.



Aniztasun funtzionala duten Bizkaiko pertsona gazteen profila



Gidan zehar elkarriketetatik ateratako esaldiak jaso dira hitzez hitz.

- APDEMA
- APNABI. Autismo Bizkaia
- ASPACE Bizkaia
- ASPACE Gipuzkoa
- Atzegi
- Bizkaiko Urtxintxa Eskola
- EDEKA.
- Euskal Gorrak Gazteak.
- Euskal Herriko Down Syndromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa
- FEVAPAS
- FEVAS. Plena inclusión Euskadi
- Gautena
- Gorabide
- Juventudes de Unidad Progresista de la ONCE



Hezitzaile gazteei zuzenduta dago gida, astialdi hezitzailearen esparrukoei bereziki. Haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan gizarte- eta hezkuntza-arloan egiten diren esku-hartzeetara bideratuta dago gida.

Horretarako, esparru horretako hainbat erakunde elkarrizketatzen ari gara. Honako hauek izango lirateke profilik aproposenak:


- Aisialdi edota astialdi hezitzailearen esparruan lan egiten duten pertsonak, orienta gaitzaketenak.
- Aniztasun funtzionalen bat duten pertsona gazteak, haien esperientzia pertsonala konta diezaguketenak eta haien eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten zailtasunen berri eman diezaguketenak.

Elkarteek edozein ekarpen egin nahi izanez gero, gogoz hartuko dugu: esperientziak, erronkak, gomendioak, baliabideak eta materialak... Horiek guztiek asko lagunduko digute gaia hurbilagotik ezagutzeko.

Elkarrizketak egiteko bildu ditugun galderetako batzuk aurreratuko dizkizuegu jarraian:

1. Zein zailtasun izaten dituzte aniztasun funtzionala duten pertsonak aisialdian eta elkartetik kanpoko jardueretan parte hartu nahi dutenean?
2. Prestakuntza-saioren bat egiten duzue erakundeko boluntarioentzat edo begiraleentzat edo jarraibide batzuk (jardunbide egokiak) ematen dizkiezue?
3. Hezitzaileen prestakuntzaren zein alderdi aldatu behar dira prestakuntza hori aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrianetara egokitu dadin?
4. Zein alderdi bildu beharko lituzke gida honek?
5. Zein mezu helarazi beharko luke gida honek?
6. Zuen erakundeetan ba al dago gaia sakonago ulertzen lagun gaitzakeen erreferentziazko materialik?
7. Zein baliabide (liburuak, bideoak, filmak, etab.) sar genitzake gidan?
8. Aniztasun funtzionala duten pertsonak bere osotasunean gizarteratzeko orduan aurkitzen dituzuen erronken artetik, zeintzuk nabarmenduko zenituzkete?

3. Aniztasuna ulertzeko betaurrekoak



3.1. Sarrerako glosario laburra

Hitzek ideiei egiten diete erreferentzia, hau da, aipatzen den objektu edo izakiaren inguruan kulturalki onartuta dauden balioei. Hizkuntzaren bitartez, balio horiek pertsonen artean transmititzen dira, baita denboran zehar ere, eta kontzientzia sortzen da horrela. Dagoeneko ez dira konnotazio negatiboa duten hitzak erabiltzen, hala nola, ‘subnormala’, ‘atzeratua’ edo ‘minusbaliatua’, lehen ofizialki ere erabiltzen zirenak. Gaur egun, hitz positiboak erabiltzen dira.

Aurreko guztia aintzat hartuta, kontuz ibili behar dugu erabiltzen ditugun hitzekin, eta are gehiago hezitzaileen kasuan, haurrentzako, nerabeentzako eta gazteen-
tzako erreferente bat baitira.

“Glosario laburra” aurkeztu dizuegu jarraian. Glosario horretan aniztasun funtzionalarekin lotutako kontzeptuak azpimarratuko ditugu: arlo horretako hitz tekniko batzuk eta gaia lantzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigun beste batzuk. Pertsonak kontzeptu horiek ezagutzea eta aniztasun funtzionalari buruz hitz egiten denean entzun daitekeen terminologia ezagunagoa egitea da gure helburua.

Elkarrizketetan bildutako informazioa oinarri hartuta egin dira definizioak, elkarrizketetan identifikatu baitira hitz gehienak. Bestalde, Elkarte³ elkartearen glosarioan bildutako hitzak, ASPACE Bizkaiaren definizio estrategikoak eta Legegintzako 1/2013 Errege Dekretuan (azaroaren 29koa, urritasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena) aipatutako testuak aldatu dira.

- **Aniztasuna:** gizartea aberasten duen faktorea.
- **Aniztasun funtzionala:** giza aniztasunaren parte bat da. Atal horretan, pertsona baten inguruak sortutako mugek are gehiago markatzen dituzte arestian muga modura definitu diren ezaugarriak. Medikuntzako kontzeptua da, zuzentasunaren eta egokitasunaren ebaluaziotik ateratakoa, eta ikuspegi berri bat proposatzen digu.

³ ‘Elkartean elkartearen glosarioa’ (online aurki daiteke): <http://www.elkartean.org/castellano/guia-de-recursos/glosario>





- **Aukera berdintasuna:** pertsonak, desberdintasun ororen gainetik, eskubide osoko herritarrek dira, beharrianak eta betebeharrak dituztenak. Baliteke pertsona batzuek beren eskubideak baliatu ahal izateko laguntza behar izatea. Hala izanez gero, modu positiboan jarduteko neurriak hartu beharko lirateke. Pertsonak edozein esparrutan jasotzen duen tratua beste edozein herritar bezain duina eta parekoa dela islatu behar du.
- **Autodeterminazioa:** pertsona bakoitzak zer nahi duen, norekin eta nola nahi duen erabakitzeko aukera izan behar du, bere beharrianen, desiren, kezken eta lehentasunen arabera, nork bere burua ezagututa eta ardura hori bere gain hartuta. Bestalde, pertsona bakoitzak bere erabakiek izan ditzaketen ondorioen jakitun izan behar da eta ondorio horien gaineko eskubide eta betebeharren ardura hartu behar du.
- **Autonomia:** nork bere ekimenez bizitzeko moduaren inguruko erabaki pertsonalak kontrolatzeko, hartzeko eta horiei aurre egiteko gaitasuna da, arauak eta norberaren lehentasunak kontuan hartuta, eta baita eguneroko bizitzan oinarritutakoak diren ekintzak gauzatzeko gaitasuna ere.
- **Begirale espezifikoak:** momentu guztietan aniztasun funtzionala duten pertsonen arreta eskaintzen dien eta haien beharrianen erantzuten dien hezitzailea, astialdian egiten diren ekintzetan.
- **Berrikuntza:** esperientzia eta ezagutzan oinarritutako ideia eta irizpide berriak aplikatzean datza, funtsezko egiteko modura.



- **Bizi-kalitatea:** gizakiaren ongizateari erreferentzia egiten dion kontzeptua da, ongizatea bera zentzu zabalean hartuta. Beharrian fisikoak, materialak, sozialak, psikologikoak, garapenari lotutakoak eta ekologikoak asebetetzean datza. Etengabeko hobekuntzan eraginkorrak izatearen aldeko konpromiso etengabea eskatzen du.
- **Bizitza independentea:** urritasuna duen pertsonak bere existentziaren inguruko erabakiak hartzeko ahalmena baliatzen du egoera honetan eta modu aktiboan parte hartzen du bere komunitateko bizitzan, bere izaera modu askean garatzeko eskubidea baliatuz.
- **Boluntarioak:** haien erabakiz, besteengandik eta eskuzabaltasunez, haien denboraren zati bat ekintza solidarioari eskaintzen dioten pertsonak, horren truke dirurik eskatu gabe. Ekintza batean parte hartzen duen pertsona bat boluntariorik jotzeko, hiru baldintza bete behar dira: hark nahi duelako egin behar du, eskuzabaltasunez eta arrazoituta.
- **Diskriminazioa:** pertsona bat modu desegokian tratatzen denean, aurreiritzien ondorioz. Oinarrizko eskubide eta askatasunak bere osotasunean eta beste edozein herritarren baldintza berdinetan baliatzeko zailtasuna edo ezintasuna.
- **Duintasuna:** pertsona bakoitza baliotsua da bere kabuz eta konfidentzialtasuna eta intimitatea errespetatzea merezi du.
- **Erantzukizun partekatua:** gizartea osatzen dugun guztiok pertsona guztien lorpen eta aurrerapenen erantzule izatea.

- **Errespetua:** norbait modu berezian kontsideratzen edo baloratzen dugunean, balio soziala edo begirune berezia erakusten diogunean.
- **Estigma soziala:** gizarteak ezaugarri edo sinesmen pertsonalak biziki gaitzesten dituen gertatzen da, gizarte horretan ezarritako arau kulturaren aurkakoak direla uste delako.
- **Herritartasun aktiboa:** komunitate bat osatzen duten eta inguratzen dituzten gauza guztiekiko konpromisoa islatzen duen jarrera duten pertsona guztiei aplikatzen zaien kontzeptua da.



- **Inklusioa:** pertsonen aniztasunari eta desberdintasun indibidualei modu positiboan erantzuten dien ikuspegia da. Kasu honetan aniztasuna ez da arazotzat jotzen, gizarte aberasteko aukeratzat baizik, familiako bizitzan, hezkuntzan, lanean eta oro har gizartearekin, kulturarekin eta komunitatearekin lotutako prozesu guztietan modu aktiboan parte hartuz.
- **Integrazioa:** UNESCOren dokumentuan bilduta dagoen lege: bazterkeria gainditzea, hezkuntzan planteamendu integratzaileak eginez (2003)⁴, pertsona guztien beharrezko aniztasunari erantzutean eta beharrezko horiek asebetetzean datzan prozesua da, ikasketa-prozesuan, kultura-arloan eta komunitateetan gehiago parte hartzeko eskatzen duena. Horrez gain, hezkuntzaren baitan eta hezkuntzaren beraren bitartez bazterkeria murriztean datza (Booth, 1996). Edukia, metodoak, egiturak eta estrategiak aldatzeko eskatzen du sarritan, adin jakin bateko haur guztiak barne hartzen dituen ikuspegia aplikatuz, gure ustez sistema ofizialaren ardura baita haur guztiak hezteak. (UNESCO, 1994).
- **Irisgarritasun unibertsala:** tokiek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete beharrezko baldintza da, eta baita objektuek, tresnek, erremintek eta gailuek ere, pertsona guztiek ulertu, erabili eta praktikatu ahal izateko, segurtasun eta erosotasun osoz eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean. "Diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren" estrategia barne hartzen du, batzuetan arrazoizko egokitzapenak egin behar izaten badira ere.

⁴ UNESCO (2003). 'Superar la exclusión mediante planteamientos integradores en la educación: un desafío y una visión, documento conceptual'. Paris, UNESCO.




- **Konpromiso etikoa:** ekintzak gardentasunez eta guztion konpromisoaz gauzatzea, gure nortasuna markatzen duten balioak aintzat hartuta, gizarteak gu identifikatu eta ezagutzeko oinarri hartzen dituenak, alegia.
- **Laguntza:** aniztasun funtzionala duten pertsonen garapena, interesak, bizi-kalitatea eta autonomia sustatzera bideratutako baliabideak eta estrategiak.
- **Laguntzarako begiralea:** momentu jakin batzuetan aniztasun funtzionala duten pertsonen arreta eskaintzen dien eta haien beharrezan erantzuten dien hezitzailea, astialdian egiten diren ekintzetan.
- **Mugak:** pertsona baten inguruan daudenean edo falta direnean, pertsona horren funtzionamendua mugatzen duten faktoreak. Horien artean, honako hauek aipa genitzake: ingurune fisikoa ezin iritsizkoa izatea, laguntzeko teknologia egokia ez izatea, herritarrek aniztasun funtzionalarekiko jarrera negatiboa izatea, arlo horretan zerbitzu, sistema edo politikarik ez existitzea edo zerbitzu, sistema eta politika horiek osasun-egoera jakin batean dauden pertsonen bizitzaren arlo guztietan parte hartzea oztopatzea. Aipatu ditugun oztopo horiei zaintzarako sare baten falta (familia, lagunak...) gehitzen badiogu, zailtasunak are larriagoak izaten dira. Izan ere, batzuetan espazio batzuek ez dute zaintza eskaintzen eta sare hori arduratu behar izaten da pertsona zaintzeaz.
- **Solidaritatea:** kolektibo osoaren onerako jardutea eta irtenbideak eskaintzea, pertsonen eskubideen eta kohesio sozialaren defentsan gizarteko beste talde edo sektore batzuekin batera lan egiteaz gain; izan ere, pertsonen duintasunaren aldeko konpromiso soziala da solidaritatea, eta ez karitatearen erakusgarria.

3.2. Aniztasunaren beraren aniztasuna

Orain arte, kontzeptu generikoa izango balitz bezala egin diogu erreferentzia aniztasun funtzionalari, baina egia esan, eta erredundantzia den arren, aniztasun funtzionala askotarikoa izan daiteke, tipologia zabala baitago. Ezin dugu segurutzat jo kolektibo hau osatzen duten pertsona guztiak berdinak direla. Garrantzitsua da hori ez egitea.

Aniztasun funtzional desberdinen kategorizazioa aldatuz joan da denborarekin eta momentuko errealitatera egokitu da. Aniztasun funtzional motak izendatu eta deskribatu ditugu jarraian:




Fisikoa

Gorputz adarrei edota lokomozio-aparatuari eragiten die. Anomalia fisikoek edota nerbio-sistemaren hutsegiteek gorputz adarren paralisia eragiten dute (paraplegiak, hemiplegiak, tetraplegiak...).



Zentzumenezkoa

Zentzumenetako baten urritasuna. Orokorrean, ikusizko edo entzutezko aniztasun funtzionalari erreferentzia egiteko erabiltzen da. Hala ere, gainerako zentzumenean ere gara daiteke aniztasun funtzionala. Aniztasun horien artean daude usaime-na edo dastamena galtzea, aniztasun funtzional somatosentsorialak (sentikortasun falta ukitzean, beroarekin, hotzarekin eta minarekin) eta orekaren nahasmenduak.



Burukoa

Buruko gaixotasuna duten pertsonen eta haien senideen taldeen Espainiako Konfederazioak adierazi duen legez, alterazio emozionala, kognitiboa edota jarreraren alterazioa da eta oinarritzkoak diren prozesu psikologikoak kaltetzen ditu, hala nola emozioa, motibazioa, kognizioa, kontzientzia, jarrera, pertzepzioa, ikasketa eta mintzaira. Ondorioz, pertsonak zailtasunak izaten ditu bera bizi den ingurune sozial eta kulturalera egokitzeke eta ezinegon subjektiboa sortzen du nolabait.

Ezinegon horren adibide dira depresioa, afektibitate-nahasmendu bipolarra, eskizofrenia eta beste psikosi batzuk.




Adimenarena eta garapenarena

Adimen Urritasunaren Elkartea Amerikarraren (AAIDD) arabera, eta FEVAS Plena Inclusión Euskadik ere halaxe dio, adimenaren urritasun funtzionalaren ezaugarrietako bat da izugarri mugatzen dituela adimenaren funtzionamendua eta moldatze-portaera, moldatzeko gaitasun kontzeptual, sozial eta praktikoa modura ulertuta. Aniztasun funtzional mota hau 18 urte bete aurretik garatzen da.



Organikoa

Aniztasun funtzional organikoaren kasuan, barruko organoak izaten dira kaltetuta egoten direnak eta ondorioz, askotan antzeman zailak diren gaixotasunekin lotzen da. Hona hemen adibide ezagun batzuk: fibrosi kistikoa, giltzurrun transplantea, biriki transplantea, bihotzeko gaitzak, etab.




Noiz-nolakoa edota behin-behinekoa

Gerta daitezkeen egoera batzuk dira, barrukoak zein kanpokoak, eta momentu jakin batean eragiten diote pertsonari.

3.3. Aniztasunaren binomioa

Argi izan behar dugu aniztasun funtzionala bi elementuren interakzioa dela: pertsona eta ingurua. Binomio bat da:



*“Supermerkatura banaa eta erosi nahi ditudan produktu guztiak gorengo apaletan badaude, horietara iristeko 1,80 metroko altuera izan beharra dagoela kontuan hartuta, eguneroko zeregin bat egiteko mugatuta dagoen pertsona bat izango naiz. Laguntza eskatu beharko dut behin eta berriro (jendea/eskailera), testuinguruak mugatu egiten baina”.
(Elkarriketetatik aterata)*

Aniztasun funtzional gehiago edo gutxiago dugin pertsonak gara, gure inguruak ezartzen dizkigun eskakizun, muga edo zailtasunen arabera. Pertsona guztiengan pentsatzen badugu, ikuspegi global eta inklusibo batetik begiratzen ikasten badugu, oso funtzionalak izango gara.

Mugak ezabatzen


Gezurra badirudi ere, gaur egun gure gizartean dauden mugez eta horiek ezabatzeaz hitz egiten jarraitzen dugu. Inklusioaren gakoak zeintzuk diren argi izateko, jarduerak eta espazioak pertsona guztientzako irisgarriak izatea ezinezkoa egiten duten oztopoak edo mugak zeintzuk diren ulertu beharko dugu lehenbizi.

“Desgaitasuna duten Bizkaiko gazteen aisiaren egoerari buruzko azterlana” azterlanean bildutakoari jarraituz, bi muga mota bereizten ditugu: kanpokoak eta barnekoak.

KANPOKO MUGAK	BARNEKO MUGAK
- Garraioa - Ekonomikoak - Arkitektonikoak, hirigintza-arlokoak eta naturalak - Komunikazio-arlokoak - Familiak jarritakoak	- Urritasuna bera - Ezagutza falta - Gaitasun falta - Gizarte-harremanen falta - Denbora falta - Egozpen negatiboak

Azterlanean, gazteak eurak dira aisialdiko jarduera batzuk ez egitearen arrazoia urritasuna dela gehienetan esaten dutenak, hori izanik barneko muga bat.

Kanpoko mugei erreparatuz gero, komunikazio falta izaten da arazo nagusia eta jarraian muga ekonomikoak, garraioarekin lotutakoak eta elementu arkitektonikoekin lotutakoak daude.





3.4. Erronkak

Aukera berdintasuna

Eskubide osoko herritar aktibo modura, aniztasun funtzionala duten pertsonen gainerako herritarren aukera berdinez gozatzeko aukera izan behar dute. Inguruan egon daitezkeen mugak ezabatzean eta aniztasun funtzional mota bakoitzaren beharrazanez erantzuteko laguntza ematean datza aukera berdintasuna.

Haurren moduan tratatzeko joera baztertzea

Aniztasun funtzionala duten pertsonekin aritzean sarri egiten den akats bat litzateke pertsona helduak ez balira bezala tratatzea. Baliteke beharizan bereziak izatea, baina aniztasun funtzionala duten pertsonen beren adineko pertsonen bezalako gurariak eta gustuak izaten dituzte eta beraz, haien adinera egokitzen den tratua jasotzea espero dute.



Irigarritasun unibertsala

Elkarteek hainbat aldiz esan duten legez, inklusioa osoa izango balitz, haiek ez lirateke beharrezkoak izango, eta hori da etorkizunerako erronketako bat. Erronka horri aurre egiteko, muga mota guztiak ezabatu behar dira (fisikoak, jarrerarekin lotutakoak), oso-osorik. Mugarik gabekoa, irigarria eta % 100ean inklusiboa den mundu batean, ez litzateke beharrezkoa izango gaur egun erakundeek egiten duten lana, gizarteak berak beteko bailituzke funtzio guztiak.


Aisialdirako jarduera inklusiboak

Bizkaia mailan egindako azterlanean bildu den legez, erakundeak eurak dira aisialdiko jarduerak aniztasun funtzionala duten pertsonentzako inklusiboak izatea eskatzen dutenak. Erronka horren baitan, hainbat lehentasun markatu dira: espazioak irigarri egin eta egokitzea, prestakuntza profesionala ematea eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrianak ezagutzea, baliabide gehiago eskaintzea, laguntzarako begiraleak eskaintzea, mugei uko egitea, tratu, aukera eta eskubide berdinak eskaintzea, publizitate eta informazio inklusiboa ekoiztea, programak, baliabideak eta zerbitzuak egokitzea...



Instituzioen inplikazioa eta konpromisoa: zeharkakotasuna politika publikoetan

Jarduera jakin batzuk gauzatzeko orduan, garrantzitsua litzateke pertsona guztiak kontuan hartzea, aniztasun funtzionala duten pertsonak bereziki, jarduerak, proiektuak eta ekintzak irisgarriak izan daitezen. Gauza bera gertatzen da politika publikoak itxuratzeko orduan. Nola da posible gaur egun irisgarriak ez diren espazioak existitzea? Nola da posible garraio zerbitzuak % 100ean egokituta ez egotea? Funtsezkoa da politikak zeharkako moduan itxuratzea, herritar guztien beharrianak bilduta. Aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrianak eta arlo horretan lan egiten duten erakundeak ere kontuan hartu behar dituzte politika horiek.



Hezitzaileentzako prestakuntza espezifikoa

Aisialdi hezitzailearen arloan aritzen diren begiraleek aniztasun funtzionala duten pertsonen beharraz zehar erantzun behar izaten diete egoera jakin batzuetan. Horretarako, astialdiko eskolen zeregina garrantzitsua da, esku hartzeko gakoak eskaintzen baitituzte. Zenbat eta handiagoa izan astialdiko eskolen eta aniztasun funtzionalaren esparruko erakundeen arteko lankidetzak, orduan eta hobea izango da aisialdi hezitzailearako espazioetan parte hartzen duten pertsonen beharraz zehar erantzuna.

Aniztasun funtzionala duten pertsona gazteei buruzko datu espezifikokoak

Momentura arte, aniztasun funtzionala duten pertsona gazteei buruzko estimazio desberdinak bildu dira. Beharrezkoa da datu estatistiko errealek biltzea. “Urritasun planen” baitan, adin-tarteak oso zabalak dira. 18-30 urte bitarteko tarteak bereizita egon beharko lirateke. Hona hemen berriz planteatu beharreko beste zerbait: datu estatistikoek % 33ko edo gehiagoko urritasun mailari egiten diete erreferentzia eta beraz, “urritasun aitortua” esaten zaio. Pertsona horiek duten aniztasun mailari bakarrik egiten zaio erreferentzia eta ez beste alderdi sozial batzuei.

4. Erantzunak eraikiz





Aisialdi hezitzaile sor daitekeen egoera bakoitzean nola esku hartu jakiteko jarraibide espezifikoak bila bazabiltza, ez dituzu hemen aurkituko. Arestian aipatu dugun legez, aniztasun funtzionala mota desberdinak daude eta mota bakoitzaren barruan hainbat maila daude. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar pertsona bakoitza oso desberdina dela eta bere inguruak zuzenean eragiten diola. Hori oinarri hartuta, jarduteko eredu bat diseinatu dugu, hezitzaileek beren lana egiterako orduan bizi ditzaketen egoerak hobeto kudeatzeko helburuarekin. Horretarako, astialdiaren esparruan behin eta berriro agertzen diren egoera desberdinak identifikatu dira. Egoera horiei erantzuteko gauzarik garrantzitsuenak zera da: hezitzaileek alde aurreko jarrera ona izatea, hau da, egoera jakin baten aurrean nolako jarrera erakusten duten.

4.1 Aurreiritziak baztertuz

Zer da burutik pasatzen zaizun lehenengo gauza aniztasun funtzionala terminoa entzutean? Zer da aniztasun funtzionala zuretzat? Ezagutzen al duzu aniztasun funtzionala duen norbait?... Hausnarketa egiteko elementuak dira galdera horiek guztiak. Ezin gara ezer lantzen hasi lehenik eta behin aniztasun funtzionalaren inguruan zer dakigun pentsatzen jarri gabe: gure inguruan aniztasun funtzionala duen norbait ezagutzen ote dugun, aniztasun funtzionalarekin lotutako zein esperientzia bizi izan ditugun, nolako jarrera izan dugun edo nola jardun izan dugun horrelako egoeren aurrean...

Ez ditugu gure pentsamenduak sinestuetan edo bolo-bolo dabilzan mito faltsuetan oinarritu behar. Horretarako sortu dugu atal txiki hau, izenburuak berak dioen moduan, aurreiritziak baztertzeko, esku hartzeko gomendio edo jarraibideetara pasatu aurretik. CERMI Madrid komiteak egindako “Cómo dirigirse adecuadamente a las personas con discapacidad” gidaren arabera (2017), honako hauek dira mito nagusiak, eta honela bazter ditzakegu:



CERMI Madrileko Gida



“Ez dira pertsona normalak”

Ez daude berdinak diren bi pertsona. Aniztasun funtzionala duten pertsonen eta aniztasun funtzionalik gabeko pertsonen artean antzekotasunak desberdintasunak baino ugariagoak dira. Guztiok gara pertsonak, guztiok gara normalak, aniztasun funtzionala izan zein ez.

“Aniztasun funtzionala duen pertsona bat ezingo da inoiz independentea izan”

Kasu askotan, pertsona bat bizitza independente baterako prestatzen badute eta behar besteko laguntza badu, berdin dio aniztasun funtzionala badu, bizitza independentea izatea lor dezakeelako.

“Aniztasun funtzionala duten pertsonen gustuak eta interesak eta gainerako pertsonenak desberdinak dira”

Pertsona guztiak berdinak gara eta beharizan berdinak ditugu. Adibide gisara, 10 urteko hurrei baloi batekin jolastea gustatzen bazaie, baliteke aniztasun funtzionala duen 10 urteko haur bati ere baloiarekin jolastea gustatzea. Erlazionatzeko orduan izan ditzakegun antzekotasunetatik edo interesetatik hasi behar gara.




“Ezin dute edozein jardueratan parte hartu”

Ikuspegi kontua da, beti bila baitezakegu pertsonak parte hartzeko modu bat. Esate baterako, eskulana egiten ari bagara eta pertsona horrek motrizitate xehea garatuta ez badu, aniztasun funtzionala duen pertsonak materialaren arduradun modura parte har lezake.

“Sexugabeko pertsonak dira eta aniztasun funtzionala duten beste pertsona batzuekin bakarrik izaten dituzte harremanak”

Aniztasun funtzionala duten pertsonak maitatzeko eta maitatuak izateko desira eta beharrez sentitzen dituzte. Badaude aniztasun funtzionalaz harago ikusten dakiten pertsonak, aniztasun funtzionala duen pertsona ezagutzera iristen direnak eta pertsona horretaz maitemintzen direnak.





“Aniztasun funtzionala duen pertsona baten seme-alabek aniztasun funtzionala izango dute edo zuzenean ezingo du seme-alabarik izan”

Gerta liteke, gaixotasun hereditarioen bat edo beste osasun egoera jakin bat baldin badu, baina horrek ez du zerikusirik pertsona bakoitzaren errealitatearekin. Edozein pertsonak, aniztasun funtzionala izan zein ez, ezaugarri jakin batzuk oinordetu ditzake eta beharbada ezingo du seme-alabarik izan. Hala ere, norbaitek istripu baten ondorioz gurpil-aulkia erabili behar izateak, esaterako, ez du esan nahi bere seme-alabek ere gurpil-aulkia erabili beharko dutenik.

“Aniztasun funtzionala duten pertsonen laneko errendimendua baxua da eta ez dira oso produktiboak”

Frogatuta dago aniztasun funtzionala duten langileak oso eraginkorrak izan daitezkeela beren lana gauzatzeko orduan. Langilea lanean hasi aurretik lanpostuaren analisia egiten bada, aldagai guztiak kontuan hartuta egin daiteke aniztasun funtzionala duten hautagaien bilaketa eta aukeraketa.

4.2. Esku hartu aurretik eman beharreko pausoak

Lehenengo pausoa eman duzu jada: zuretzat berria edo ezezaguna den egoera baten aurrean, zerbait egiteko beharrezana sentitu duzu. Zeren bila ari zaren aurkituko dugu orain: joko bat egokitu, maila bereko pertsonen arteko harremana indartzeko estrategiak bilatu, aniztasun mota jakin baten inguruko informazio espezifiko eta kontuan izan beharreko jarraibideak bilatu.

Atal honetan ez duzu errezeta magikorik aurkituko; bai, ordea, egoera desberdinetara egokitze nozioak, gomendioak eta baliabide espezifikoak.

4.2.1. Esku-hartzea prestatzeko jarraibideak

“En! Aniztasun funtzionala duen pertsona bat daukat taldean. Zer egin behar dut? Honelako egoera baten aurrean nagoen lehen aldia da eta ni ez naiz begirale espezifiko, ez dakit zer egin behar dudan”.

Beste ezeren gainerik, zaude lasai. Normala da horrela erreakzionatzea. Sarritan, egoera ezezagunen aurrean, pertsonok ez gara errealitate berriak dakartzan beharrezanez erantzuteko gai sentitzen. Segurtasun eza, beldurra eta abar senti ditzakegu, baina hori landu egin daiteke. Hezitzailea bazara, orain arte ezagutzen ez zenuen errealitate berri horri aurre egiteko moduko gaitasunak eta konpromisoa dituzu jada, oinarri modura. Gaitasun horiek beharrezko erremintekin eta oro har aniztasun funtzionalari eta bereziki aniztasun funtzional motari buruzko ezagutza espezifikoarekin osatzea besterik ez zaizu falta.

Guztiak gara desberdinak, pertsona bakoitza mundu bat baita: bere gustuak, ideiak, beharrezan, gaitasunak eta abar ditu. Gainera, pertsona bakoitza inguru jakin batean bizi da, beste pertsona batzuekin erlazionatzen da, jardueretan parte hartzen du eta abar. Horrenbestez, pertsona bat ezagutu ahal izateko eta nola tratatu behar dugun jakiteko, pertsona horren eta bere inguruaren ezaugarriak ezagutu behar ditugu. Aniztasun funtzionalaren arloan lan egiten duten elkarteek eta astialdi hezitzaileko erakundeek emandako laguntzari esker, ikuspegi globala izaten lagun gaitzaketen jarraibide batzuk identifikatu ditugu.



1. *Pertsona ezagutu*

Gure taldean aniztasun funtzionala duen pertsona bat dagoela jakiten dugunean egin beharreko lehenengo gauza eta garrantzitsua, pertsona hori ezagutzea da. Aukerak uzten badigu, funtsezkoa litzateke pertsona horri entzutea, zer behar duen ikustea, bere desioak, gustuak, lehentasunak, afizioak eta abar ezagutzea... Hori guztia aniztasun funtzionala alde batera utzita.

2. *Aniztasun funtzional mota identifikatu*

Horri buruzko informazioa bilatzea da. Aniztasun funtzional mota identifikatu behar dugu, asko daudelako eta bakoitzak ezaugarri berezi batzuk dituelako, aniztasun funtzional mailaren arabera aldatzen direnak.

3. *Familiarekin harremanetan jarri*

Familiaren kontaktua badaukagu, oso lagungarria izango litzateke haiek pertsonari buruzko informazioa ematea. Oso interesgarria da pertsonaren eguneroko bizitza, autonomia maila, laguntza-beharrianak, bere lagunekin nola erlazionatzen den, bere gustuak, beldurrak, gaixotasunak, gaitasunak etab. ezagutzea. Gainera, modu horretara bi alderdien arteko konfiantza sor-

tzen duten loturak ezarriko ditugu. Ohikoena ez bada ere, baliteke kasu batzuetan familiak pertsonak beharrian bereziak dituela ez onartzea edo familiak pertsona gehiegi babestea eta ondorioz, pertsonari garatzen ez uztea. Hori dela eta, pertsona horri dagokion elkartearekin harremanetan jarri beharko ginateke, ikuspegi neutrala, objektiboa eta profesionala eman ahalko digutelako.

4. *Ingurua ezagutu*

Familia-ingurua ezagutzeaz gain, garrantzitsua litzateke pertsonaren ingurua zein den jakitea: lagunak, auzoa, komunitateko baliabideak... Pertsona gehiago eta modu globalagoan ezagutzeko, berebizikoa litzateke pertsonen arteko harremanen dimentsioaren planteamendu zabalagoa izatea. Bildu dezakegun informazio guztiak asko lagunduko digu behar bezala esku hartzeko.



5. Aniztasun funtzionala duen pertsonak parte hartzen duen elkartearekin edo erreferentziazkoa den elkartearekin harremanetan jarri

Oro har, aniztasun funtzionala duten pertsonak erakunde jakin bateko kide izaten dira eta bertan beren beharraznei erantzuteko lanetan aritzen dira, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea amaierako helburu modura izanik. Aniztasun funtzionalari eta kasu zehatz bati buruzko informazio guztia eman ahalko digute bertan. Sarritan fitxa pertsonalizatuak izaten dituzte, parte-hartzaileari buruzko datu interesgarri guztiekin: hartzen duen medikazioa, autonomia maila, beste pertsonekin nola erlazionatzen den, etab.

Gogora ezazu!

Datu hauek pribatuak dira eta erakundeek bakarrik erabil ditzakete, datuen babesa dela-eta. Familiak berak eman behar du fitxa horiek erakundearena ez den esparru batean erabili ahal izateko baimena




6. Informazioa antolatu

Iturri desberdinetatik informazioa bildu ondoren, bildutakoa ondo aztertzeke eta forma emateko, antolatzeko eta hezitzaile modura dugun beharrianera egokitzeko momentua da.


7. Informazioa lantaldearekin partekatu

Prozesatutako informazioa hezitzaile taldeari pasatu. Garrantzitsua da informazioa nola ematen dugun, ikuspegi positibo eta konstruktibo batetik egin behar baitugu. Kasua ezagutzen dugu, behar ditugun tresnak ditugu eskura, prestakuntza egokia jaso dugu eta aukera bat da, bai taldearentzat eta bai kargura dituen pertsonentzat edo udalekuekin edo astialdi hezitzaileko jardueretan parte hartzen duten gazteentzat. Hori bai, beti konfidentzialtasuna errespetatuz.


Bazterkeria




Segregazioa



Integrazioa



Inklusioa



“Hona hemen duela urte batzuetako egoeraren eta gaur egungoaren arteko aldea: integraziotik inklusiora pasatu gara. Gauza ez da haur horiek espazio berean egotea bakarrik, guztiek parte hartzea ere bada”.

4.3. Hezitzailearen egunez egunekoa

4.3.1. Inklusioa helburu

Astialdi hezitzaileko jardueretan parte hartzen duten pertsonen inklusio osoa da hezitzailearen helburua. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu hezkuntza esku-hartzeak izandako bilakaeraren inguruan aritzea.

“Azken hamarkadetan aniztasun funtzionalaren arloan jarduteko printzipio eta jarraibideek bilakaera positiboa izan dute argi eta garbi, gero eta gehiago egiten baita gainerako pertsonen dituzten helburuen parekoen aldeko apustua” (Verdugo, 2003)⁵.

⁵ Verdugo, M.A. (2003). ‘De la segregación a la inclusión escolar’. Salamankako Unibertsitatea.



Bazterkeria

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) adierazi bezala, bazterkeriak gizartean dauden aukera ekonomiko, sozial, kultural eta politikoez gozatzeko mugak jarri zaizkien taldeei egiten die erreferentzia⁶.


Segregazioa

“Segregazio” terminoak norbait urrundu edo banatzeari egiten dio erreferentzia. Urte askotan zehar, aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboa gainerako pertsonengandik bereizi eta sailkatu izan da, haien beharrezko erantzun espezifikoak emateko.

Integrazioa

Pauso esanguratsua da, aniztasun funtzionala duten pertsonak espazio normalizatueta batzearen aldeko apustua egiten baitu. Baina aniztasun funtzionala duten pertsonak dira alde zuzenetik existitzen ziren eredueta egokitzen direnak eta horrela ezingo diegu haien beharrezko erantzun.

⁶ NBE (1998). ‘Informe sobre desarrollo humano’. Ediciones Mundi-Prensa.



Inklusioa

Pertsonen aniztasunari eta bakoitzaren desberdintasunei modu positiboan erantzuten dien ikuspegia da. Aniztasuna arazo modura ikusi ordez, gizartea aberasteko aukera modura ikusten du, familiako bizitzan, hezkuntzan, lanean eta oro har prozesu sozial eta kultural guztietan eta komunitateetan modu aktiboan parte hartuta (UNESCO, 2005)⁷.

Hezitzaileek inklusioa lortzeko pausoak ematen jarraitu behar dute, honako hau lortu nahi badugu:

- Desberdintasunen aurrean, bidezkoa eta errespetuz betea den gizartea.
- Pertsona guztiei mesede egitea, haien ezaugarriak gorabehera, inor etiketatu edo baztertu gabe.
- Sarbide parekatua eskaintzea, pertsona guztiek parte hartu ahal izateko doikuntza iraunkorrak eginez eta pertsona bakoitzak gizarteari egiten dion ekarpena baloratuz.


4.3.2. Astialdi hezitzaileako espazioak, aisialdi inklusiborako espazio

“Hezkuntza ez-formala (HEF) hezkuntza modalitate bat da eta beraz, tokia izan behar du gure herrialdean garatzen diren hezkuntza-arloko politikeetan.

Hezkuntza bizitza osoan zehar izan beharreko zerbait modura eta giza eskubide modura hartzea eskolaratzeko ideiaz harago doa, HEFk herritartasuna eta hezkuntzaren kalitatea eta berdintasuna garatzeko egin dezakeen ekarpena indartuz”. (Morales, 2009)

60-80ko hamarkadaz geroztik, astialdiko mugimenduak aisialdi hezitzaileko espazio izan dira. Mugimendu horiek erakunde, federazio eta elkarlanerako lan-sare birlakatzen joan dira. Ideologia-arloko desberdintasunak gorabehera, horiek guztiek indarrak batu dituzte formalak ez diren espazioetatik egin den eta egiten ari den lana aitortzeko.

Gizarteak aurrera egin du eta aisialdi hezitzaileako espazioak ez dira atzean gelditu. Eguneratzen eta honako hiru taldeetan banatutako elkarrekin parte hartzen duten pertsonen beharrezan erantzuten jarraitu dute: haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa.



⁷ UNESCO (2005). 'Guidelines for Inclusion: Ensuring Access to Education for All'.

Modu boluntario eta konprometituan aritzen diren pertsonak dira eredu horrek martxan jarraitzeko ardatza. Pertsona horiek dira errealitatearekin batera joateko horren garrantzitsua den belaunaldien arteko erreleboa osatzen dutenak eta egu-nero-egunero gizartea eraldatzen laguntzen dutenak.

Giza baliabideez gain, baliabide metodologikoak ere garrantzitsuak dira arlo honetan. Bizipenetatik ikasteen oinarritutako metodologia aktibo eta parte-hartzailearen bitartez, honako balio hauen transmisioa posible egiten duten ekintzak gauzatzen dira: errespetua, parte-hartzea, tolerantzia, aukera berdintasuna, euskal kulturaren ezagutza eta sustapena, kultura artekotasuna, bakea, sormena...

Azken urteotan zehar metodologia ez-formala espazio hezitzaile edo formaletan tokia irabazten hasi dela ikusi ahal izan dugu, ikasgelaren barruko ikasketa-prozesuetarako funtsezko tresna modura.

Hori dela eta, astialdi hezitzaileak eta gizarte konprometituagoa eta solidarioagoa lortzeko lanean ari diren eragile guztiek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobetxatzen jarraitu behar dugu.

Astialdi hezitzaileerako espazioak beti egon dira elkarrekin edo auzoetan egiten diren jardueretan parte hartu nahi duten pertsona guztientzat, eta gaur egun halaxe izaten jarraitzen du.


Lan eta esfortzu askorekin, erreferentziatzeko espazio bilakatu dira, oraindik ere erakundeek eta oro har gizarteak aitortza eskatzen badute ere.



“Garrantzitsua da ikasgelako haurrek aniztasun funtzionala duten ikaskideak ezagutzea, nolakoak diren jakitea eta baloratzea. Izan ere, nire ustez garrantzitsua da pertsona bakoitzaren distira ikusten jakitea eta pertsona bakoitzak jardueran ahal duen moduan parte hartzea”.



4.3.3. Esku hartzeko oinarritzkoak diren osagaiak



Hezitzaileek egiten duten lanaren muina eguneroko bizitzan oinarritzen da, haien kargura dituzten pertsonekin erlazionatzen direnean. Gidan zehar errepikatu dugun legez, pertsona bakoitza desberdina da eta aniztasun funtzional mota bakoitzarekin gauza bera gertatzen da. Hori dela eta, ezin dugu liburu hau zailtasun espezifikoen bilduma modura planteatu, kasuistika amaigabea baita.


Aurrerago aniztasun funtzional mota desberdinak dituzten pertsonak tratatzeko oinarritzko jarraibide batzuk emango dizkizugun arren, zuk badituzu aurki ditzakezun egoeretan erantzuteko beharrezkoak diren gaitasun eta baliabide gehienak. Zure super-botereak dira errespetua, tolerantzia, maitasuna, enpatia, behatzeko gaitasuna, entzuteko gaitasuna, malgutasuna, asertibotasuna... Horiez gain, gaitasun sozialak dituzu eta beste pertsonaren lekuan jartzen eta laguntzen dakizu, eta horiek dira ondo jarduteko gakoak.



- **Errespetua:** begirunetsua izatea eta pertsonaren balioa aitortzea. Harreman solido baten oinarririk garrantzitsuenetakoa da.

- **Tolerantzia:** beste pertsonaren ikuspegia gure ikuspegiarengandik desberdina izan daitekeela ulertzea, eta desberdina bada ere, baliagarria eta erabilgarria izan daitekeela ulertzea. Hein batean, beste pertsonaren lekuan jartzeko ariketa egitean datza.

- **Maitasuna:** hainbat modutara erakutsi daiteke eta gure ekintza guztiak markatu beharko lituzkeen jarrera da. Guztiok behar dugu maitasuna eta eskertu egiten dugu gainerako pertsonak arretaz tratatzen gaituztenean, berdin dio guri errieta egiten edo gu goraipatzen ari diren.



- **Entzutea:** bizitzaren aspektu guztietan bezalaxe, oso garrantzitsua da aktiboki entzutea. Arretaz eta lasaitasunez entzutea, pertsona bat hitz egiten dagoen bitartean erantzungo diogunean pentsatu gabe. Horixe da beste pertsona ulertzeko eta berarengandik ikasteko modurik onena. Askotan, komunikatzeko zailtasunak dituzten pertsonekin (ez dute hitz egiten, ahoskatzeko zailtasunak dituzte, ez dituzte esaldiak bukatzen...) guk hitz egiteko joera dugu eta ez diegu haiei uzten nahi dutena esaten.

- **Behatzea:** pertsonaren jokabideari eta jarrerari erreparatzeak zer gertatzen zaion eta nola jokatu behar dugun jakiteko arrastoak eman diezazkiguke.

- **Enpatia:** maitasunez entzuten, behatzen eta jarduten badugu, enpatia gaitasun bilakatzen da. Beste pertsonak sentitzen duena sentitzen laguntzen digu, pertsona horren tokian jartzen eta ulertzen laguntzen digu.

- **Malgutasuna:** buru irekia izatea eta egoera berrietara egokitu ahal izatea. Labur esanda, malgua izatea aniztasun funtzionala duten pertsonekin bizi ditzakegun egoera desberdinei erantzuna emateko gaitasun garrantzitsuenetakoa bat da. Arestian aipatutako gaitasun guztiek malguak izaten lagun gaitzakete.
- **Planifikazioa:** garrantzitsua da ekintzak alde zuzenetik egituratzea, planteatutako helburuak lortzeko. Askotan erabilgarria izaten da hurrengo egunean egingo diren ekintzei buruzko informazioa ematea, horrek kokatzen eta ideia onartzen laguntzen baitie aniztasun funtzionala duten pertsonen.
- **Asertibotasuna:** gure desioak modu adeitsu, argi, ireki, zuzen eta egokian adierazteko gaitasuna da, esan nahi duguna besteek kalterik egin gabe esateko gaitasuna, alegia. Gaiak egin gaitzaketen egoera batzuk biziko ditugu, baina ezin dugu ahaztu hezkuntza-arloan erreferenteak garela eta bare egon behar dugu.
- **Pazientzia:** lasaitasuna galdu gabe eta urduritasunik gabe egoera jakin batzuei aurre egitea ahalbidetzen digun gaitasuna da. Espero ez genituen egoera askotan, presioak gainditu egingo gaitu baina egoera horiek kontrolatzen saiatu behar gara, ahalik eta modurik onenean aurre egin ahal izateko, hezitzaileak eredu garela ahaztu gabe.
- **Pertsona bakoitzaren erritmoa egokitzea:** pertsona bakoitzaren erritmoa desberdina da eta ezinbestekoa da norberaren erritmoa errespetatzea. Pertsona batzuek denbora gehiago behar izaten dute eguneroko zeregin batzuetarako, baina hori onartu behar dugu eta irtenbideak bilatu behar ditugu, larritu gabe. Pertsonak janzteko denbora gehiago behar badu, ordutegia bete ahal izateko guk janztea akatsa litzateke. Aukerarik onena zein den baloratu behar dugu: lehenago esnatu, aukeratzeko arropa gutxiago eskaini...
- **Konfiantza:** norbaitek pertsona batekiko duen segurtasuna da, edo pertsona horrek transmititzen duen segurtasuna. Hezitzaileen profila konfiantza oinarritu behar da; gure ardura izango ditugun pertsonen lasaitasuna transmititu behar diegu, etxean bezala senti daitezten eta edozein momentutan beharizan bati erantzuteko gure laguntza izango dutela senti dezaten.



Beharrezko osagaiak identifikatu ondoren, gaitasunen erabilera eta konbinazioa egokitu behar ditugu pertsona eta egoera bakoitzera. Ez ditugu osagai berdinak erabiltzen gailetak, bizkotxo bat edo magdalenak egiteko, eta gauza bera gertatzen da aniztasun funtzional mota bakoitzarekin. Guk ere osagaiak modu desberdinetan erabili beharko ditugu aniztasun funtzional motaren eta pertsonaren beraren arabera: entzuteko gaitasunaren 200 g, 150 g enpatia, 400 g asertibotasun, 350 g malgutasun... Gida honen bitartez, osagaiak emango dizkizugu, baina hezitzaile bakoitzak ikusi behar du egoera bakoitzean nola erabili behar dituen.

Hezitzaileen helburua pertsona guztiek aisialdi hezitzaileko espazioetan egiten diren jarduera guztietan parte har dezatela sustatzea da eta horretarako jarduerak inklusiboak izan behar dira derrigorrez. Gehienetan ikuspuntu kontua izaten da, era batera edo bestera pertsona guztiek parte hartzeko modua bila daitekeelako.

“Aurreiritziak baztertuz” atalean proposatutako adibidea aintzat hartuta, eskulanak egiten ari bagara eta pertsona horrek motrizitate xehera garatuta ez badu, aniztasun funtzionala duen pertsonak materialaren arduradun modura parte har lezake. Edo bestela, eskulanak egin ordez beste jarduera bat proposa daiteke zuzenean, pertsona guztiek egiteko modukoa. Aniztasun funtzionala duen pertsonak parte hartzen badu, gainerako parte-hartzaileek bezain modu aktiboan ez bada ere, parte hartzea da garrantzitsuena. Askotan hezitzaileak izaten gara balio-judizioak

egiten ditugunak, pertsona horiek egiten ari direnaz gozatzen ez daudela pentsatuz, baina ez da hala. Pertsonari ondo pasatzen ari den ala ez galdetzea da errazena, zuzenean.

“Udalekuetan antolatzen den diskotekan, pertsona bat besteei begira egon daiteke izkina batean eserita, aspertuta egon gabe. Baliteke ondo pasatzen egotea, beste pertsonei begira eta musikaz gozatzen”.

Egokitutako jolas eta jarduera ugari daude baina ez dago zertan ezarritakoa jarraitu behar. Taldea osatzen duten pertsonen ezaugarrien arabera asma ditzakegu jarduerak. Lehian oinarritu ordez, jarduerak eta jolasak lankidetzan oinarritu behar dira, maila bereko pertsonen arteko harremana erraztu eta sustatu behar dute, beste pertsonaren lekuan jartzen lagundu behar dute, etab.

Jarduerak gauzatzeko orduan, gomendagarria litzateke aniztasun funtzionala duen pertsona begirale laguntzailearekin edo begirale espezifikoarekin bakarrik ez egotea. Laguntzeko norbait izateak ez du esan nahi gainerako begiraleak pertsona horrekin harremanetan egon behar ez direnik edo haren beharrezanean erantzunik eman behar ez dietenik. Talde osoa egon behar da harremanetan aniztasun funtzionala duen pertsonarekin eta berarekin hitz egin behar dute, gainerako parte-hartzaileekin egiten duten moduan.

Oro har jarrera positibo eta proaktiboa badugu, errazagoa izango da bidean zehar suertatzen diren egoerei aurre egitea. Nolanahi ere, kasu batzuetan ezinezkoa izaten da aniztasun funtzionala duen pertsonarekin harremanetan egotea, batez ere aniztasun funtzional mota jakin batzuen kasuan, autismoarekin lotutako nahasmenduak dituzten pertsonekin esate baterako. Hezitzaileak ez du hori porrot modura hartu behar. Jarrera positiboa mantendu behar du eta esperientzia horretatik ikasi behar du, etorkizuneko esku-hartzeetarako.



4.3.4. Jardunbide egokien gida

CERMI Madridek 2017an egindako “Cómo dirigirse adecuadamente a las personas con discapacidad” gidaren arabera, honako hauek dira aniztasun funtzional mota bakoitzarekin behar bezala esku hartzeko oinarritzko jarraibideak:

Entzumenaren aniztasun funtzionala duten pertsonak

- Jarri ondo ikus zaitzaketen leku batean eta hurbiletik hitz egin, aurrez, pertsonaren altueran jarrita eta aurpegia estali gabe, ez eskuekin, ezta beste edozein objektu-rekin ere. Kontuan izan entzumenaren aniztasun funtzionala duten pertsona askok ez dakitela ezpainak irakurtzen eta informazio-galera handia izan daitekeela.



- Hitz egin iezaiozu begira duzunean, beti. Gorputzaren eta aurpegiaren adierazpenak eta ezpainak irakurtzea oso garrantzitsuak dira mintzairaren soinuen osagarri modura.
- Hitz egin naturaltasun osoz, ez egin azkarregi edo astiroegi, eta ondo ahoskatu, esajeratu gabe eta garrasi egin gabe. Funtsezkoa den informazioa emateko orduan, keinuak edota idazmena erabil ditzakezu laguntzeko (oso arruntak ez diren hitzak, izenak, helbideak, ordutegiak, datak eta abar emateko orduan).
- Saiatu gaia azkarregi ez aldatzen; ez hitz egin modu landugabeen edo argota erabiliz; ez komunikatu hitz solteekin.
- Izan pazientzia komunikazioarekin. Ulertzen ez bazaitu, errepikatu mezua edo eraiki modu sinpleago batean. Hori bai, esaldiak zuzena izan behar du eta antzeko esanahia duten hitzak erabili behar dira. Hitz egiten ari zaizunean ulertzen ez badiozu, ez egin ulertu diozunaren plantarik. Pertsonari ulertu ez diogula esatea komeni da, nahi duenaren berri emateko beste modu bat erabil dezan.
- Espainierako Zeinu Hizkuntza erabiltzen duten pertsona gorrei hitz egiteko, erabili zeinu hizkuntza hori ezagutzen baldin baduzu, eta bestela eskatu interprete profesional bat (ILSe). Kontuan izan herrialde bakoitzak bere zeinu hizkuntza duela.

- Dokumenturen bat edo inprimakiren bat entregatuz gero, ziurtatu uler daitekeela. Gorra diren pertsona batzuek zailtasunak izan ditzakete irakurtzeko eta idazteko orduan.
- Kendu “gormutu” hitza zure hiztegitik, mintzaira ez erabiltzeak ez baitu esan nahi kaltetuta duenik.
- Kontuan izan beharra dago gaueko jarduerak ikusmenaren arloan egokitu behar direla, arreta pizteko argi-efektuak erabiliz, pertsonak abisatuz, etab. Jarduera horietako gehienak haur gorren beharrianetara egokituta egoten dira eta baita uretako jarduerak ere, entzuteko protesiak, inplanteak eta abar daramatzatelako. Horiek gabe, galduta sentitzen dira eta ikusteko beharrian handiagoa izaten dute. Ondorio modura, jarduera guztiak ikusteko modukoak izan beharko lirateke, pertsona horiek errazago parte hartzeko eta integratzeko.

Ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonak

- Identifika zaitez eta ziurtatu pertsona horrek berarekin hitz egiten ari zarela dakiela.
- Ikusizko aniztasun funtzionala duen pertsona bati ibiltzen laguntzeko, gure besoa eskaini behar diogu, zuzenean berrari besotik heldu ordez, eta pauso erdi aurrerago joan behar gara, bidean aurkitzen ditugun oztopoen berri emanez.
- Zehatzak izan behar gara mezuarekin, “eskuinera edo ezkerre” esan, adibidez, eta ez “hemen edo hor”, eta ez dugu ahozko hizkuntza keinuekin ordezkatu behar.
- Leku berri batera iristen garenean, gomendagarria litzateke pertsonarekin batera joatea eta espazio berri hori deskribatzea, eremua deskribatzea, hain zuzen ere.
- Ingurua ordenatuta mantendu, ez eduki ateak erdi irekita eta gauzak beren lekuan egon daitezela. Aldaketaren bat egin bada, jakinarazi iezaiozu pertsonari eta ez bertatik joan abisatu gabe.
- Giroaren aldaketa txikiak mesedegarriak izan daitezke autonomiarako: ondo argizatuta egotea, kontrastea, etab.
- Ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsona guztiek ezin dezakete informazio modu berean jaso. Ikusteko duten ahalmenaren arabera, Braillea, tinta zabalagoarekin inprimatutako testuak, informatikako tresnak eta abar beharko dituzte eta haien beharrianetara egokitu beharko dituzte.



Buruko gaixotasuna duten pertsonak

- Buruko gaixotasuna duen pertsona batek beste edozein herritarren eskubide berdinak ditu eta beraz, gainerako pertsonak bezala tratatu behar dugu, bere ahultasunaz abusatu edo aprobe txatu gabe eta proposatzen edo eskatzen zaiona ulertzeko orduan guk besteko ahalmena duela kontuan hartuta.
- Buruko nahasmendua duten pertsonak estigma deitzen den “hesi” bat daukate. Gizarteak eraiki du estigma eta gizarteak ezaugarri edo sinesmen pertsonak batzuk larriki gaitzesten dituenean sortzen da, gizarteak ezaugarri edo sinesmen horiek ezarritako arauen aurkakoak direla uste duelako. Diskriminazioaren eta gaitzespen sozialaren iturri nagusia da. “Pertsonen berdintasunaren aitormena ezeztatzen duen eta pertsona horien eskubideak mugatzen dituen tratu bidegabea” ematean datza estigmatizatzea, eta ondorio zuzenak ditu pertsonengan. Estigma gizarteak eraikitakoa bada, eraiki egin den moduan suntsitu ere egin daiteke.
- Komunikatu modu argian, anbiguotasunik gabe eta nahasketak ekidinez.
- Estresa sor dezaketen egoerak ekidin, eztabaidak edo kritikak, esate baterako.
- Urduritasun edo nahasmen egoeraren bat suertatzen denean, hezitzaileok lasaitu behar dugu lehenbizi.
- Errespetatu haien isiluneak eta bizi-espazioa.
- Entzun pertsonak eta ez epaitu. Haien ondoan egon, baita ulertzen ez dituzunean edo haiekin ados ez zaudenean ere, eta onartu iritzi desberdinak.
- Informazioa bilatu. Pertsonari gertatzen zaiona ezagutzen eta ulertzen badugu, gehiago eta hobeto laguntzeko gai izango gara.



Adimenaren aniztasun funtzionala duten pertsonak

- Trata dezagun adinaren arabera, baina bere gaitasunetara egokituz.
- Hizkera sinplea, zuzena eta argia erabiliko dugu eta ulertu gaituela bermatu beharko dugu. Naturalak eta lauak izan beharko gara ulertzeko zailtasunak dituen pertsona bati hitz egiteko orduan.
- Elkarriketa batean baliteke astiro erantzutea eta beraz, erantzuteko denbora eman beharko diegu. Pazientzia izan beharko dugu eta malguak izan beharko gara, beti babesa emanez. Pertsonak esan zaion guztia ulertu duela bermatu beharko dugu.
- Haren erantzunetara adi egon beharko dugu, komunikazioa egokitu ahal izateko, beharrezkoa izanez gero.
- Behar duenean bakarrik lagundu beharko diogu eta gainerako jardueretan bere kabuz jarduten utzi beharko diogu. Ez ditugu gauzak haren ordeztu egin behar eta ez dugu gehiegi babestu behar. Positiboa litzateke pertsonari feedback-a ematea, gauzak behar bezala egiten ari dela jakin dezan.
- Adimenaren aniztasun funtzionala duten pertsonak aldaketetara egokitzeke zailtasuna dute, segurtasunik eza eragiten baitiete. Komenigarria litzateke aldaketen berri ematea, gertatu baino lehen.
- Beste pertsona batzuekin erlazionatzen lagundu behar diegu.



Autismoa espektroaren nahasmendua (AEN) duten pertsonak

- Naturaltasunez hitz egin, autismoa duten pertsonak eta zu ez zarete desberdinak.
- AEN duten pertsonak zailtasunak izaten dituzte komunikatzeko eta erlazionatzeko orduan. Baina horrek ez du esan nahi komunikatu eta erlazionatu ezin direnik, beste modu batera egiten dutela baizik.
- Galde iezaiezu zer gustatzen zaien edota zer ez: autismoa duten pertsona batzuei musuak, besarkadak edo eskua emanez agurtzea gustatzen zaie; beste batzuek, aldiz, nahiago dute gehiegi ez ukitzea edo altuegi ez hitz egitea.



- Interesa zaitez hitz egiteko orduan gogokoen dituen gaiengatik.
- Saiatu zentzu bikoitza duten esaldiak, bromak, ironia edo sarkasmoa ez erabiltzen. Baliteke ez ulertzea, pertsona horrekin zauden lehen aldia bada.
- Azaldu nor zaren eta zer egingo duzuen AEN duen pertsonari. Horrela, ondo ulertuko du zer gertatzen ari den eta nola portatu behar den. Haiek zu bezalakoak dira.
- Erabili esaldi laburrak eta saiatu jarraian galdera gehiegi ez egiten.
- Hitz egiten zaudenean autismoa duen pertsonak begiratzen ez bazaitu, ez du esan nahi entzuten ari ez denik edo errespeturik gabeko pertsona denik. Emaiozu denbora, eta ez behartu.
- Komunikazioan seinale argiak, hizkera zehatza eta keinu nabarmenak erabili behar dira. Horrez gain, ikusizko kodeak (irudiak, argazkiak...) erabil daitezke ahozko komunikazioan, beharrezkoa baldin bada.
- Baliteke jarrera batzuk ezinegona eragiten dion egoera baten (zarata bat, mina) ondorio izatea. Ezinegon horren jatorria identifikatzen eta arazoa konpontzen saiatu behar gara.

Aniztasun funtzional fisikoa duten pertsonak

- Astiro edota makuluekin ibiltzen den pertsona batekin batera goazenean, gure erritmoa berarenera egokitu beharko dugu.
- Gurrpil-aulkian dagoen pertsona batekin hitz egiteko, bere aurrean eta bere al-tuera berean jarri beharko gara, ahal izanez gero.
- Eskaini laguntza gauzak eramateko edo hartzeko, ateak edo leihoak irekitzeko, saltzeko makinak erabiltzeko, etab.
- Pertsonak makuluak, bastoiak edo ibilgailua erabiltzen baditu, kontuan izan horiek guztiak pertsonari laguntzeko, hura eusteko eta oreka mantentzen laguntzeko direla eta beraz, per-tsonarengandik hurbil utzi beharko genituzke elementu horiek guztiak.
- Pertsona batek laguntza teknikoren bat erabiltzen duen ez badakigu (gurrpil-aulkia, ibilgailua, teklatu bereziak, etab.), berari gal-detu nola lagun diezaiokezun.
- Ez inoiz gurrpil-aulkia mugitu pertsonari baimenik eskatu gabe, bat-bateko mugi-menduak ekidin eta irmoki gidatu.
- Ez erabili komun egokituak biltegi mo-dura, erabiltzeko moduan eta oztoporik gabe egon behar dira.





Garun-paralisia duten pertsonak

- Adimenaren aniztasun funtzionalari eta aniztasun funtzional fisikoari buruzko puntuetan adierazitako guztia hartu behar da kontuan.
- Garun-paralisia duen pertsonak gurpil-aulkia, makuluak edo ibilgailua erabiltzen baditu edo ibiltzeko zailtasunak baditu, galdetu laguntzarik behar duen. Ez segurutzat jo laguntza behar duenik.
- Zure eskaintzari ezetz esaten badio, ez gaizki hartu. Pertsonak zerbait bere kabuz egin badezake, halaxe egin behar du. Garrantzitsua da hori, pertsonak konfiantza irabaziko duelako eta trebatu egingo delako.
- Hitz egin garun-paralisia duen pertsonari, eta ez bere laguntzaileari. Zurekin zuk espero zenuen moduan ez komunikatzeak ez du esan nahi komunikatzeko gaitasunik ez duenik. Berak badaki nola erantzun behar dizun eta bere laguntzaileari haren ordeztzeko eskatzeko gai ere bada, beharrezkoa izanez gero, hari baimena emanda.

- Pertsona mintzairaren bitartez komunikatzeko gai bada, emaiouzu esaldiak eta arrazoibideak bukatzeko denbora. Ez moztu, eta mezua ulertzen ez baduzu, eskatu behar beste aldiz errepikatzeko.
- Pertsonak komunikatzeko beste sistema bat edota lagungarri bat erabiltzen badu, sinbolo-taulak adibidez, ikasi horiek erabiltzen.
- Utziozu erabakiak bere kabuz hartzen, bai gauza txikiatarako eta bai gauza handietarako. Erabakitzea eta inizatiba hartzea erraztu.
- Pertsona horri eman edo egin diezaiokenezunean pentsatzeaz gain, onartu garun-paralisia duen pertsonak eman diezazukeena eta harremana aberasgarria izango da biontzat.
- Zer egin ez dakizunean edo zerbait nola egin ez dakizunean, galdetu pertsonari zuzenean eta pozik jakinaraziko dizu nola laguntzea nahi duen.





4.4. Dinamika eta jarduera espezifikoak

4.4.1. Mugarik gabeko jarduerak

Espezifikoki egokitutako dinamikak eta jarduerak erakutsi aurretik, jarduera inklusiboek izan beharreko ezaugarri komunak nabarmendu nahi ditugu: aldeztu aurretik existitzen ziren dinamikak eta jarduerak egokitu ditzakegu, eta baita horiek berriro eta proposamen berriak asmatu ere.

Baliabideak egokitzeko zein berriak sortzeko orduan, kontuan izan behar dugu inklusioaren oinarriak eta esku hartzeko gakoak zeintzuk diren.

INKLUSIOA AISIALDIKO JARDUERETAN

OINARRIAK	ESKU-HARTZEAREN GAKOAK
- Guztientzako modukoa den gizartea - Aniztasunaren balioa - Gizartean dituen ikusgarritasuna eta presentzia - Komunitate baten parte izatearen sentimendua, onarpena eta harrera - Eskubide berdintasuna - Herriartasun osoa: legala, politikoa eta soziala - Aukeren berdinketa - Parte-hartze aktiboa - Bata bestearengandik ikastea - Aisialdiko zerbitzuetara eta espazioetara sarbidea izatea eta horiek erabiltzea - Pertsonen arteko harremanei mesede egitea.	- Parte hartzeko aukerak sortzea - Diskriminazio mota oro desagerraraztea - Aukeratzeko askatasunaren alde egitea - Guztientzako jarduerak antolatzea - Garapen osoa posible egitea - Pertsona bakoitzaren balioa aitortzea - Aniztasunarekiko errespetua - Erantzukizun partekatua - Kide izatearen zentzua - Pertsona guztiak aintzat hartzea - Laguntza kudeatzea eta ingurura egokitzea - Laguntzeko beharrianak ezagutzea - Irisgarriak diren aisialdirako inguruak izatea

Desgaitasuna duten Bizkaiko gazteen aisiaren egoerari buruzko azterlana (2014). Bizkaiko Foru Aldundia.

Ideiak barneratu ostean, gauzatu behar ditugun dinamikak...

- Lankidetzan aritzeko izan behar dira, eta ez lehia aritzeko.
- Aukera berdinak eskaini behar dituzte.
- Parte hartzen duten pertsonen indarguneak barne hartu behar dituzte.
- Maila bereko pertsonen arteko harremanak sortzea erraztu eta sustatu behar dute.
- Beste pertsonaren lekuan jartzen lagundu behar dute.
- Taldeko kideak elkarren artean hobeto ezagutzea sustatu behar dute.

4.4.2. Jarduera espezifikoak

BONBA

BEHAR DEN MATERIALA	Baloi bat.
HELBURUAK	- Jolas tradizionalak egokitzen ikastea. - Bata bestea ezagutuz gozatzea.
DINAMIKAREN DESKRIBAPENA	Parte-hartzaile guztiak zutik egongo dira biribilean, pertsona bat izan ezik. Pertsona hori biribilaren erdian eseriko da. Zutik eta biribilean dauden pertsonak baloia pasatzen hasiko dira, ondoan duten pertsonari, eta galdera bat egingo diote: zer ikasten ari zara? Txokolatea gustatzen zaizu? Zer amestu duzu gaur?...Baloia jasotzen duen pertsonak galderari erantzun beharko dio eta ostean baloia pasatu beharko dio hurrengo pertsonari eta beste galdera bat egin beharko dio. Bien bitartean, erdigunean eserita dagoen pertsona zenbatzen egongo da, ahopeka. 20 zenbakira heltzen denean, esku bat altxatu eta "KONTUZ!" esan beharko du. Beste 20 zenbatzen dituenean, beste eskua altxatu eta "ARRISKUA!" esan beharko du. Amaitzeko, beste 10 zenbatzen dituenean, txaloka jo eta "BONBA!" esan beharko du. Momentu horretan, baloia eskuetan duen pertsona lurrean eseri beharko da eta berriz hasiko da jokoa. Joko hasierarekin alderatuz gero, oraingo honetan eserita dagoen pertsonaren ondoan dagoenak haren hanken gainetik salto egin beharko duela da alde bakarra, baloia hurrengo pertsonari pasatzeko. Zutik pertsona bakarra geratzen den arte jarraituko du jokoa. Biribilaren erdian zenbatzen ari den pertsonak "ALDAKETA!" esan ahalko du edozein momentutan, eta parte-hartzaileek baloia pasatzeko norabidea aldatu beharko dute.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	Garrantzitsua da taldea behatzea, jokoa ahalik eta modurik egokienean egokitzeko eta hala, parte-hartzaile guztiek ondo pasatu ahal izateko.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	Aniztasun funtzionala duten pertsonak izan ditzaketen beharizanen arabera, baliteke beste baloi mota bat erabili behar izatea, kaskabilodun baloi bat edo tenporizadorea duen baloi bat (urez betetako puxika lehertzen du denbora bukatutakoan), esate baterako.



Hona hemen proposatzen diren egokitzapenetako batzuk:

Ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonak

Jokoa hasi aurretik, aurkezpenen txanda bat egitea komeni da, parte-hartzaile guztiak haien artean ezagutzeko eta ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonak ahotsak ezagutu eta pertsona bakoitza non dagoen jakin ahal izateko. Entzun daitezkeen abisuak eman beharko dira jokoan zehar: kaskabilo bat edo entzumenaren bitartezko estimuluren bat duen baloi bat beharko dugu, galdera bakoitzaren aurretik galdera norentzat den esan beharko da, eta baloia aniztasun funtzionala duen pertsonarengandik jasoko duen parte-hartzaileak bere izena esan beharko du, aniztasun funtzionala duen pertsonak nor den eta zein distantziara dagoen jakin dezan. Lagunen gainetik salto egin orde, soka bat jar daiteke biribilaren inguruan. Parte-hartzaileek eskuekin helduko beharko diote sokari (soka horrek ikusizko aniztasun funtzionala duen pertsona gidatuko du).

Aurreko guztia egiteaz gain, parte-hartzaile guztiek begiak estalita izatea da beste aukera bat.

Entzumenaren aniztasun funtzionala duten pertsonak

Parte-hartzaileek zeinuen eta keinuen bitartez egin beharko dituzte galderak, soinuak erabili gabe: ez ahotsa, ezta ahozko hizkuntza ere. Hala ere, jokoaren parte hori bazter dezakegu, haurrak gazteegiak direla eta ondorioz keinuen bitartez komunikatzea haientzat oso zaila izan daitekeela uste badugu. Erdian eserita dagoen pertsonak baloiaren norabidea aldatu nahi badu, keinu zirkular bat egin dezake besoarekin. Beste aukera bat litzateke erdian esertzen den pertsonaren figura ezabatzea eta baloi bat erabili orde, puxika bat erabiltzea, tenporizadorea duen bola baten barruan sartuta. Bola horrek puxika lehertzen du denbora amaitzen denean.

Adimenaren urritasun funtzionala duten pertsonak

Hainbat aldiz eta ahalik eta modurik errazenean azaldu beharko da jokoa zertan datzan. Beharbada gomendagarria litzateke kontaketa luzatzea eta begiraleren baten laguntzea.

4.4.3. Sentsibilizatzeko baliabideak

FUTBOLA KONOEGIN

BEHAR DEN MATERIALA	• Kartoi mehea. • Goma elastikoa. • Guraizeak. • Zelo edo grapak. • Baloi bat.
HELBURUAK	• Ikus-eremu txikia duten pertsonen lekuan jartzea. • Kirol tradizionalak praktikatzea, baina beste ikuspuntu batetik
DINAMIKAREN DESKRIBAPENA	• Kartoi mehearekin kono bat egin eta goma bat jarri, maskara modura jartzeko (parte estua kanporantz). • Futbol partida bateko dinamika berbera da. Espazio mugatu batean futbol partida bat jokatzeko datza, aurpegian konoak jarrita. Horrela, jokalarien ikus-eremua txikiagoa izango da eta ikusmen urritasunaren inguruan sentsibilizatuko dira. • Hona hemen ezberdintasun bakarra: parte hartzen duten pertsonen baloia lokalizatzeko, haien artean koordinatzeko eta baloia jaurtitzeko zailtasunak izan behar dituzte.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	• Hezitzaileak oso adi egon behar du, jolasten ari diren pertsonen elkarrekin talka ez egiteko eta minik ez egiteko.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	• Jarduera interesgarria da ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonen buruzko oinarri-zko informazioa sartzeko.



GOALBALL

BEHAR DEN MATERIALA	• Kaskabilodun baloi bat. • Begi-mozorroak. • Baloia sartzeko ateak (2). • Belaunetakoak.
HELBURUAK	• Olinpiar Joko Bereziako kirol hau hurbiletik ezagutzea. • Ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonen lekuan jartzea.
DINAMIKAREN DESKRIBAPENA	• 3 pertsonako taldeak antolatu. • Talde bakoitza ate baten aurrean edo jokaleku mugatu baten alde bakoitzean jarriko da. • Helburua baloia jaurtitzea eta aurkarien atean (edo jolasteko mugatutako eremuan) gola sartzeko da.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	• Goalball-era jolasteko araudi bat dago baina aisialdirako nahikoa iruditzen zaigu kirol hori modu ludikoan praktikatzea, jendeak ezagutu dezan.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	Hezitzailea arduratuko da jarduera dinamizatu eta epaitzeaz.



SASKIBALOIA GURPIL-AULKIAN

BEHAR DEN MATERIALA	Gurpil-aulkiak, jardueran parte hartuko duten pertsona guztientzat.
HELBURUAK	- Olinpiar Joko Berezietako kirol hau hurbiletik ezagutzea. - Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonen lekuan jartzea. - Kirol tradizionalak praktikatzea, baina beste ikuspuntu batetik.
DINAMIKAREN DESKRIAPENA	Jokoaren arauak saskibaloian erabiltzen diren arauen parekoak direla esan genezake, aldaketa gutxi batzuekin. Dena den, helburua jendea sentsibilizatzea eta beste kirol mota bat ezagutzea denez, pertsona bakoitzak egokiak iruditzen zaizkion aldaketak egin ahalko ditu, parte-hartzaile kopuruaren eta jarduerarako emandako denboraren arabera, esate baterako.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	Jolasten hasi aurretik, garrantzitsua litzateke gurpil-aulki bat erabiltzeko oinarritzko nozio batzuk azaltzea. Kasu honetan, gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsonaren bat badago, hark azal lezake nola erabiltzen den.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	Berebizikoa da pertsona guztiek baldintza berdinetan jolastea eta beraz, debekatuta dago ipurmasailak aulkitik altxatzea edo aurrera egiteko hankak erabiltzea.



BINAKA


BEHAR DEN MATERIALA	Begi-mozorroak, bikote bakoitzeko bat.
HELBURUAK	Ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonen lekuan jartzea.
DINAMIKAREN DESKRIBAPENA	- Taldea bikoteetan banatu (pertsona kopurua bakoitia bada, pertsona batek hezitzailearekin batera parte har dezake edo bestela hiru pertsonako talde bat egin daiteke). - Bikote bakoitzeko pertsona batek begi-mozorroa jarri beharko du, ikusmena ez erabiltzeko. Horrela, ikusi ezin duen pertsonaren lekuan jarriko da. - Beste bikotekideak begi-mozorroa daraman pertsona gidatu beharko du egokitzat jotzen duen lekutik. Eskutik heldu beharko dio eta jarraibideak eman beharko dizkio. - Begi-mozorroa daraman pertsonak galderak egin ditzake. - Ibilbidea bukatutakoan, begi-mozorroa daraman pertsona momentu horretan non dagoen asmatzen saiatu beharko da. - Jarduera errepikatu, begi-mozorroa beste bikotekideari pasatuz.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	Jarduera bukatutakoan, bizi izandako esperientzien inguruan mintzatuko gara eta ikusizko aniztasun funtzionala duten pertsonen inguruko hausnarketa egiteko aprobetxatuko dugu.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	- Garrantzitsua da begi-mozorroa daraman pertsona eroso sentitzea. - Bastoi batekin egin daiteke jarduera baina hezitzaile batek gainbegiratu beharko du.



4.4.4. Prestatzaileen prestakuntza

'ONGI ETORRI HOLANDARA'. Emily Perl Kingsley (1987)

BEHAR DEN MATERIALA	"Ongi etorri Holandara" izeneko kontakizuna
HELBURUAK	Aniztasun funtzionala duen eta aita edo ama den pertsona baten esperientzia ulertu eta partekatzea eta egoera hezitzailearen eremura estrapolatzea.
DINAMIKAREN DESKRIBAPENA	1. Gaia azaldu eta aurkeztu gabe, honako kontakizun hau irakurriko dugu: "Ongi etorri Holandara". 2. Dinamikaren parte diren pertsonen eskatuko diegu kontakizun horrek zein hausnarketa egitera eraman dituen azaltzeko.
DINAMIZATZEKO GOMENDIOAK	Interesgarria litzateke ahalik eta esperientzia gehien biltzea eta parte hartu nahi duten pertsona guztiei hala egiten uztea.
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK	Jarduera hau baliotsua da hezitzaileentzat, eta baita etorkizunerako hezitzaileak prestatzeko ere. Landu nahi dugun testuingurura egokitu behar dugu jarduera eta horretarako, adibide zehatzak jarri behar ditugu: aniztasun funtzionala duen pertsona baten gurasoek bizitako esperientzia hezitzaile baten metafora modura erabiltzea, taldean aniztasun funtzionala duen pertsona bat daukanean.



“Ongi etorri Holandara”

Askotan eskatzen didate urritasuna duen seme-alaba bat zaintzea nolakoa den kontatzeko, esperientzia bakan hau bizitzeko aukerarik izan ez duten pertsonak uler dezaten eta nola sentituko liratekeen imajina dezaten. Honelakoxea da urritasuna duen seme-alaba bat izatea:

Haurdun egotea bidaia zoragarri bat antolatzearen modukoa da. Opor batzuk Italian, esate baterako. Bidaiarako gidaliburuak erosten dituzu eta plan zoragarriak egiten dituzu: Koliseoa, Miguel Angel eskultorearen David, Veneziako gondolak, italierazko esaldi erabilgarriak ikasten dituzu... Zirraragarria da guztia.

Hilabetea ilusioz zain eman ondoren, abiatzeko eguna iritsi da. Maletak egin dituzu eta bazoaz. Hainbat ordu beranduago, hegazkina lurreratzen da. Momentu horretan hegazkineko laguntzailea agertzen da eta honako hau iragartzen du: “Ongi etorri Holandara”.

“Holandara?”, galdetzen diozu. “Nolatan Holandara? Ni Italiara nindoan! Italian egon behar nintzen ni. Italiara joatearekin amestu dut beti.”

Dena den, hegazkinak egin beharreko ibilbidea aldatu egin da eta hegazkina Holandan lurreratu da, eta bertan geratu behar zara.

Ez zara leku beldurgarri eta ezatsegin batera iritsi, eta hori da garrantzitsuena. Ez da leku zikina, ezta kirasduna ere, eta ez dago goseterik edo epidemiarik. Beste helmuga bat da, besterik ez. Beraz, orain zera egin behar duzu: gidaliburu berri bat erosi eta hizkuntza berri bat ikasi. Jende asko ezagutuko duzu, beste bidaia hartan ezagutuko ez zenukeena.

Italia baino herrialde lasaiagoa da Holanda, eta beharbada ez da bestea bezain deigarria. Baina Holandan bolada bat igaro ondoren, indarberritu egingo zara, zure ingurura begiratu duzu eta Holandak haize-errotak, tulipak eta abar dituela ikusiko duzu... Holandak Rembrandt-ak ere dituela konturatu du zara.

Bien bitartean, zure ezagunak oso lanpetuta dabilta, Italiatik joan-etorrian, oso ondo pasatzen ari direla eta harro-harro. Denbora luzez, beharbada zure bizitza osoan, honako hau pentsatzen jarraituko duzu beharbada: “Bai, nik hara joan behar nuen. Horixe zen pentsatuta neukana”. Eta ziurrenik nahigabe hori ez da sekula desagertuko. Izan ere, amets hori galtzea mingarria da benetan.

Dena den, bizitza osoa penaz igarotzen baduzu, Italiara heldu ez zarelako, baliteke Holandak eskaintzen dizkizun gauza berezi eta zoragarriez inoiz ez gozatzea.

Emily Perl Kingsley (1987)

4.5. Material osagarria

Gaur egun, interneten bilaketa orokorra egiten badugu, erraz aurkituko ditugu material osagarriari buruzko gomendioak biltzen dituzten gidak. Nolanahi ere, bereziki interesgarriak diren zenbait material aurkeztu nahi dizkizuegu atal honetan:

1. Dokumentalak



A Ciegas-Blindsight (2006)

Tibeteko sei nerabe
itsuren istorioa
kontatzen du, oztopoak
gainditzeaz diharduena.
7045 metroko altuera
duen Lhakpa Ri
mendia eskalatzea
pentsatu zuten, Everest
mendiaren iparraldean.
Haien hezitzaileak,
itsua bera ere, eta
eskalatzaile famatu
batek zailtasunak
gainditzen lagunduko
diete eta haiek pentsa
baino urrunago heltzera
animatuko dituzte.



La Historia de Jan (2016)

Jan-en bizitzako lehenengo sei
urteak biltzen ditu dokumental
honek. Down sindromea duen haur
bat da Jan.



María y Yo (2013)

Autismoari buruzko
dokumentala. Mariaren
istorioa kontatzen du,
Miguel Gallardoren alaba
autistarena, eta bien
arteko harremanaz ere
dihardu, Kanarietara
egindako bidaia bat
testuingurutzat hartuta.

<http://www.rtve.es/lacarta/videos/el-documental/documental-maria-yo/2060907/>



¿Y si te dijeran que puedes? (2017)

Buruko gaixotasuna duten 5
pertsonek erronka kontatzen du,
Naranjo de Bulneseko gailurrera
igotzea lortu.

2. Filmak



Intocable (2011)

Philipperen istorioa kontatzen digu. Diru asko duen aristokrata da Philippe eta tetraplegiko geratu zen parapentearekin izandako istripu baten ondorioz. Philippek Driss kontratatuko du etxean laguntzeko, auzo marginal batekoa den eta kartzelatik irten berria den etorkin bat. Lehen begiratuan pertsonarik egokiena ez badirudi ere, pixkanaka-pixkanaka elkarrekin ondo moldatzen hasiko dira, adiskidetasun bitxi eta dibertigarria eratu arte.



La Familia Bélier (2014)

Belier familiako kide guztiak gorrak dira, 16 urteko Paula izan ezik. Paula interprete-lanetan aritzen da bere gurasoentzat, familiaren baserriko kontuutarako bereziki.

3. Film laburrak



Cuerdas (2013)

Mariaren eskolako errutina aldatu egingo da Nicolas izeneko haur berri bat heltzen denean. Garun-paralisia du Nicolasek. Balioez betetako adiskidetasun istorio eder bat kontatzen du film laburrak.




El Regalo-The Present (2014)

Jakek etxean pasatzen du ia egun osoa, bideojokekin jolasten, amak opari bat egiten dion arte. Film labur honek animazioa erabiltzen du aniztasun funtzionalaren inguruko hausnarketa egiteko.


<https://vimeo.com/152985022>

4. Liburuak



Por Cuatro Esquinas de Nada. Jerome Ruillier

Ezberdintasunaz, adiskidetasunaz eta bazterkeriaz diharduen ipuina. Gaztelaniaz bakarrik.



Elmer. David McKee

Kolore asko dituen elefante baten bizitza kontatzen digu, beste elefanteengandik desberdina den batena, alegia. Aniztasuna, errespetua eta tolerantzia lantzeko baliabide egokia da. Euskaraz eta gaztelaniaz.




Titiriteroen Ipuinak. Urtxintxa Eskola.

Zeinu-hizkuntzan eta braille metodoa erabiliz irakur daiteke liburu hau, ikusteko, entzuteko eta irakurtzeko baita. 8 istorioko bilduma da, kulturartekotasuna, baterako hezkuntza, inklusioa eta euskara ardatz dituenak. Euskaraz bakarrik.




Superhéroes. Roberto Aliaga. Anaya

Eskola baten barruko istorio ezberdinak biltzen ditu liburu honek, benetan berezia eta baikorra den ikuspegi batetik. Aniztasunarekiko errespetua eta aniztasunaren balio erantsia lantzen ditu. Gaztelaniaz bakarrik.



Txakurrari Gauean Gertatutako Istripu Bitxia. Mark Haddon

Asperger sindromea duen haur bat da Christopher. Bere aitarekin bizi da, Swindon-en. Gau batean Wellingtonen gorpua aurkituko du, bere bizilagunaren caniche txakurrarena, alegia. Hala, ikerketa bat hasiko da, Christopherren eguneroko bizitza erakutsiko diguna. Euskaraz eta gaztelaniaz.



El Caso De Lorenzo. Isabelle Carrier

Hitz sinpleak eta irudiak erabiliz, "desberdina" den haur baten eguneroko bizitza erakusten du: haren zailtasunak, bertuteak, egunero gainditu behar dituen oztopoak ...

Aniztasunaren eta arazoak gainditzearen inguruan aritzeko baliabide egokia da.

Gaztelaniazko zeinu-hizkuntzan:

<https://www.youtube.com/watch?v=SmVkdFi8eBs>

Euskaraz: <https://vimeo.com/42494451>



María eta biok. Miguel Gallardo. Astiberri ediciones.

Autismoa lantzen duen komikia da. Aita baten eta bere alabaren arteko harremana erakusten digu. Mariaren bizitza kontatzen digu, irudi argi eta sintetikoak erabilita, bere eguneroko bizitza hurbiletik ezagutu ahal izateko. Euskaraz eta gaztelaniaz.

5. Hezkuntza-materialen kita



“Hezkuntza inklusioa” Adimen eta garapen urritasuna. FEVAS (2010)

Sentsibilizatzeko eta adimen eta garapen urritasuna duten pertsonenganako jarrera positiboetan hezteko erabilgarriak izan daitezkeen eduki eta baliabide praktikoak biltzen ditu.

Euskaraz eta gaztelaniaz.



Ilusioa zabaltzen duten ipuinak (ONCE Fundazioa)

Abentura dibertigarrien bitartez, aniztasun funtzionala duten pertsonen bizipenak erakustea helburu duten kontakizunen bilduma.

Online aurki daitezkeen materiala.

<http://bibliotecainfantil.fundaciononce.es/>

Euskaraz eta gaztelaniaz (eta beste hizkuntza batzuetan ere bai).

Baliabide gehiago

Aniztasun funtzionala lantzeko baliabide ugari daude. Hemen duzue arestian azpimarratu ditugun materialen aukeraketa zabaltzeko zerrenda bat:


FILMAK

- 100 metros (2016).
- La teoría del todo (2014).
- Soul surfer (2011)
- Con todas nuestras fuerzas (2013).
- Yo también (2009)
- El truco del manco (2008).
- La escafandra y la mariposa (2007).
- Bailo por dentro (2004).
- Daredevil (2003).
- Una mente maravillosa (2001).
- Yo soy Sam (2001).
- Forrest Gump (1994).
- Mi pie izquierdo (1989).
- Rain Man (1988).
- Hijos de un Dios Menor (1986).

LIBURUAK

- ¿A dónde vamos papá? (Jean-Louis Fournier).
- ¿Qué le pasa a este niño? (Angels Ponce).
- A ciegas en Manhattan (Nuria del Saz).
- Bajo la misma estrella (John Green).
- Daniel no habla. (Marti Leimbach).
- El ángel diestro (Jorge Parada).
- El grito de la Gaviota (Emmanuelle Laborit).
- El niño que vivía en las estrellas (Jordi Sierra i Fabra).
- Flores para Algernon (Daniel Keyes).
- La soledad de los números primos (Paolo Giordano).
- Los renglones torcidos de Dios (Torcuato Luca de Tena).
- María cumple 20 años (Miguel Gallardo).
- Martes con mi viejo profesor (Mitch Albom).
- Una posibilidad entre mil (Cristina Durán).

5. Intereseko guneak



5.1. Elkartek eta taldeak

Bizkaian

Aspace Bizkaia

Webgunea: www.aspacebizkaia.org

Facebook: Aspace Bizkaia

Twitter: @AspaceBizkaia

Helbide elektronikoa:

aspace@aspacebizkaia.org

tiempolibre@aspacebizkaia.org

Telefono-zenbakia: 944414721

Helbidea: Julio Urquijo kalea 17, lonja. Bilbo.

APNABI. Autismo Bizkaia

Webgunea: www.apnabi.org

Facebook: Apnabi Autismo Bizkaia

Twitter: @APNABI

Helbide elektronikoa:

autismo@apnabi.org

Telefono-zenbakia: 944 755 704

Helbidea: Antonio Guezala Margolariaren kalea, 1-2 behe. Bilbo.

AVIFES. Buruko Gaixotasuna duten Pertsonen eta haien Senideen Bizkaiko Elkartea

Webgunea: www.avifes.org

Facebook: Avifes

Twitter: @Avifes

Helbide elektronikoa:

info@avifes.org

Telefono-zenbakia: 94 445 62 56

Helbidea: Santutxu kalea, 40. 48004 Bilbo.

FEKOOR (Urritasun Fisikoa edota Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea)

Webgunea: www.fekoor.com

Facebook: Fekoor Federación Bizkaia

Twitter: @Fekoor

Helbide elektronikoa:

fekoor@fekoor.com

Telefono-zenbakia: 94 405 36 66

Helbidea: Blas de Otero kalea, 63 behe. 48014 Bilbo.

Gorabide

Webgunea: www.gorabide.com

Facebook: Gorabide

Twitter: @Gorabide

Helbide elektronikoa:

gorabide@gorabide.com

Telefono-zenbakia: 94 443 12 10

Helbidea: Poza Lizentziatuaren kalea 14, 2. solairua. Bilbo

Euskaditik atera gabe

EDEKA. Urritasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundea

Webgunea: www.edeka.es

Helbide elektronikoa: info@edeka.es

Telefono-zenbakia: 946 07 25 21

Helbidea: Perez Galdos kalea 11. Bilbo.

EUSKAL GORRAK. Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa

Webgunea: www.euskal-gorrak.org

Facebook: Euskal Gorrak

Twitter: @EuskalGorrak

Helbide elektronikoa: info@euskal-gorrak.org

Telefono-zenbakia: 944 765 052

Helbidea: Hurtado de Amezaga kalea 27 - 6. solairua. Bilbo.

FEVAS Plena inclusión

Euskadi

Webgunea: www.fevas.org

Facebook: FEVAS Plena inclusión Euskadi

Twitter: @fevas

Helbide elektronikoa:

comunicacion@fevas.org

Telefono-zenbakia: 944 21 14 76

Helbidea: Colon de Larreategui kalea, 26 behe. C. Bilbo.

FEVASPACE. Garun-paralisiaren Euskal Federazioa

Helbide elektronikoa: aspace@aspacebizkaia.org

Telefono-zenbakia: 94 441 47 21

Helbidea: Julio Urquijo kalea, 17 - Lonja. 48014 Bilbo.

Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa

Webgunea: www.downpv.org

Facebook: Fundación Síndrome de Down del País Vasco

Helbide elektronikoa: down@downpv.org

Telefono-zenbakia: 946 611 222

Helbidea: Begoñako Andra Maria kalea, 12-14 atzealdea. Bilbo.

ONCE

Webgunea: www.once.es

Facebook: ONCE

Twitter: @ONCEuskadi

Telefono-zenbakia: 944 70 20 44

Helbidea: Perez Galdos kalea, 11, 48010 Bilbo

6. Aniztasun funtzionalaren oroitzapenezko egunak



Aniztasun funtzionala hezkuntzaren esparrutik landu ahal izateko, urtean zehar dauden ospakizunak aurkeztea ere beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Hona hemen gure egutegia:

Otsailak 28 Gaixotasun arraroen nazioarteko eguna

Martxoak 21 Down sindromearen nazioarteko eguna

Apirilak 2 Autismoaren inguruan kontzientziaziorako nazioarteko eguna

Ekainak 14 Gaztelaniazko zeinu-hizkuntzaren nazioarteko eguna

Irailak 28 Entzumenaren aniztasun funtzionalaren nazioarteko eguna

Urriko lehenengo asteazkena Garun-paralisiaren nazioarteko eguna

Abenduak 3 Urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna

Abenduak 5 Boluntarioen nazioarteko eguna

Abenduak 13 Ikusizko aniztasun funtzionalaren nazioarteko eguna

Gehiago jakiteko

Azken atal honetan erreferentziazko testuak bildu dira, Gida hau prestatzeko orduan baliagarriak izan zaizkigunak, hain zuzen ere.

1. Dokumentuak

- Madariaga, A. y Lazcano, I. (2014). Estudio sobre la situación del ocio de la juventud con discapacidad en Bizkaia. Bilbao. Diputación Foral de Bizkaia.
- CERMI Madrid (2017). Como dirigirse adecuadamente a las personas con discapacidad.
- NBE (2006) Urritasuna duten pertsonen eskubideei buruzko konbentzioa eta eskumeneko protokoloa.
- UNESCO (2006) Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2016) Bizkaian urritasuna duten pertsonen parte-hartzearako eta bizi-kalitaterako plana 2016-2019.
- NBE (1998). Informe sobre desarrollo humano. Ediciones Mundi-Prensa.
- UNESCO (2005). Guidelines for Inclusion: Ensuring Access to Education for All.
- Morales, M. (2009). Aportes para la elaboración de propuestas de políticas educativas. MEC-UNESCO.
- Legegintzako 1/2013 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, urritasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Batégina onesten duena. BOE (azkeneko aldaketa 2015ean).
- Rodríguez, S. y Ferreira, M.A.V. Diversidad funcional: Sobre lo normal y lo patológico en torno a la condición social de la *dis*-capacidad.
- Canimas, J. (2015). ¿Discapacidad o diversidad funcional? Siglo Cero, 46 (2), nº254, 79-97.
- UNESCO (2003). Superar la exclusión mediante planteamientos integradores en la educación: un desafío y una visión, documento conceptual. París, UNESCO.
- Bizkaiko Urtxintxa Eskola. "Heziketa premia bereziak. Balioetan hezteko koadernoak" nº4.

2-Artikuluak

- Romañach, J. y Lobato, M. (2005) "Diversidad funcional, nuevo término para la lucha por la dignidad en la diversidad del ser humano" Foro de vida independiente.
- Verdugo, M.A. (2003). "De la segregación a la inclusión escolar". Universidad de Salamanca.

3-Webguneak

- Elkartean elkartaren glosario digitala: <http://www.elkartean.org/castellano/guia-de-recursos/glosario>
- www.apdema.org
- www.apnabi.org
- www.aspacebizkaia.org
- www.aspacegi.org
- www.atzegi.eus
- www.avifes.org
- www.downpv.org
- www.edeka.es
- www.euskal-gorak.org
- www.fekoor.com
- www.fevapas.org
- www.fevas.org
- www.gautena.org
- www.gorabide.com
- www.once.es

Proiektuaren atzean

Amaitzeko, eskerrak ematea baino ez zaigu gelditzen, Gida hau sortu duten eta sortze-prozesuan lagundu diguten pertsona guztiei.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bigarren gida hau posible egiten duten pertsona guztiei, emandako laguntzagatik; izan ere, haien ekarpenak eta iritziak bigarren Gida hau egiteko oinarri modura hartu ditugu.

Pertsona horiei guztiei, ESKERRIK ASKO.





Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*